120 EKAINA 2014 JUNIO

Atarrabiarako udal informazio aldizkaria
Boletín de información municipal de Villava

www.villava.es

# Villava Atarrabia

Osoko bilkurak [2]
Txakurren gaineko kontrol zorrotzagoa [3]
Erne; lapurretak adineko jendeari [3]
Helbideratu gabeko ordainagirien ordainketa, ekainaren 20ra arte [4]
Udarako hiri-udalekuak [5]
II. Kirol Jaia [6]
Udako kirol jarduerak [8]
Gorputz ariketak ekainean kirol Bonuarekin [8]
Benito Lertxundi Atarrabian kantari irailaren 6an [9]
Kaleko Arte Eszenikoen VII. Lehiaketa [10]
Jai bus zerbitzua udan [11]
I. Antzerki Gazte Topaketa Atarrabian eta Mutiloan [12]
Agenda [15]

Plenos [2]
Más control sobre los perros [3]
Alerta de robos a personas mayores [3]
El pago de los recibos no domiciliados, hasta el 20 de junio [4]
Colonias urbanas para el verano [5]
II Fiesta del Deporte [6]
Actividades deportivas para el verano [8]
Ejercicio en junio con el Bono deporte [8]
Benito Lertxundi actuará en Villava el 6 de septiembre [9]
VII edición del Certamen de Artes Escénicas de Calle [10]
Servicio de Jai bus en verano [11]
I Encuentro de Teatro Joven en Villava y Mutilva [12]
Agenda [15]



## Badator GAU ZURIA / Viviremos otra NOCHE BLANCA

**Ekainaren 21ean, larunbata, gaueko kultur programaren II. ekitaldia eginen da / El sábado 21 de junio se celebra la II edición de este programa cultural nocturno**



## Hirigintza berria Atarrabiarako / Nuevo urbanismo para Villava

Euskara udan ikasteko laguntzak (5)

Ayudas al aprendizaje de euskera en verano (5)

Ekainaren 7tik aurrera igerilekuak zabalik (6)

El 7 de junio arranca la campaña de piscinas (6)

Harrera Beti Onak-eko neskei (8)

Recibimiento a las chicas del Beti (8)

**Argitaratzailea:** Atarrabiako Udala. **Erredakzio Kontseilua:** Pedro Gastearena, Guillermo Ezkieta, Richard García, Mercedes Sánchez, Ángel Larraya, Charo Fraguas, Pello Gurbindo, eta José Vicente Urabayen (koordinatzailea). **Argazkia:** Antonio Olza. **Itzulpena:** Kike Diez de Ulzurrun. **Errealizatzailea:** Heda Comunicacion. **Ale kopurua:** 4.400. **LG:** NA 1223-1996. **Doako banaketa** // **Edita:** Ayuntamiento de Villava. **Consejo de Redacción:** Pedro Gastearena, Guillermo Ezkieta, Richard García, Mercedes Sánchez, Ángel Larraya, Charo Fraguas, Pello Gurbindo y José Vicente Urabayen (coordinador). **Fotografía:** Antonio Olza. **Traducción a euskera:** Kike Diez de Ulzurrun. **Realiza:** Heda Comunicación. **Tirada:** 4.400 ejemplares. **D.L.:** NA 1223-1996. **Difusión gratuita**

## Osoko bilkura arrunta
### 2014ko martxoak 27

**UC-3 unitatearen aldaketa xehakatuaren espedientea; behin betiko onespena.** Zinegotzi guztiak bertan zirela, Osoko bilkurak aho batez onetsi zuen UC-3 unitatearen aldaketa xehakatua.

**Aurrekontua aldatzeko espedientea, kreditu gerakina sartzeko, Martiket kirol instalazioetan konponketa lanak egite aldera.** Osoko bilkurak aho batez onetsi zuen aurrekontua aldatzeko espedientea; horren bidez, 32.072 euroko kreditu gerakina sartu da, Martiket kirol instalazioetan hainbat konponketa lan egiteko.

**Aurrekontua aldatzeko espedientea, egungo tatamiaren ordez beste bat erosteko, olana babesgarriarekin batera.** Udalbatzak aho batez onetsi zuen aurrekontua aldatzeko espedientea; horren bidez, 5.000 euroko kreditu bat eskatu da, tatami berri bat erosteko, olana babesgarriarekin batera, Martiket kirol instalazioetarako.

**UPNren mozioa udalaren osoko bilkurak zuzenean bideoz emateko.** Osoko bilkurak gaia mahai gainean uztea erabaki zuen eta, bitartean, azterlan bat eginen da udalaren osoko bilkurak zuzenean bideoz emateko aukeraz. 12 boto izan ziren alde, eta 5 abstentzio (UPN eta EB).

**UPNren premiazko mozioa, Adolfo Suárez presidente ohiaren heriotzaren karira.** UPNren mozioaren premiazkotasuna onetsita, puntuz puntu bozkatu zen. Lehen puntua onartu zen: hots, Udalak bere nahigabea agertzea eta Suárez Illana familiari doluminak agertzea; 10 boto izan ziren alde (UPN, Atarrabia Bai, PSN-PSOE eta Pello Gurbindo zinegotzi atxiki gabea) eta 7 abstentzio (Bildu, Nabai 2011 eta EB). Bigarren puntua atzera bota zen: Adolfo Suárezek demokrazia eta askatasuna ekarri eta finkatzeko egindako lana aintzat hartzea; 11 boto izan ziren aurka (Bildu, Atarrabia Bai, Nabai 2011 eta Pello Gurbindo), 5 boto alde (UPN eta PSN-PSOE) eta abstentzio 1 (EB). Hirugarren puntua ez zen onartu: Suarezen figura nabarmentzea, jarrera demokratikoen adibide gisara eta guztion interesaren, elkarrizketaren, adiskidetasunaren eta tolerantziaren defendatzaile gisa; 11 boto izan ziren aurka; 4 alde (UPN) eta 2 abstentzio (PSN-PSOE eta EB). Eta laugarren puntua ere atzera bota zen: bat egitea gizarteak eta erakundeek presidente ohiari egindako omenaldiarekin, martxoaren 27ko osoko bilkuran minutuko bateko isilaldia egiteko; 7 boto izan ziren kontra (Bildu, Nabai 2011 eta Pello Gurbindo); 4 boto alde (UPN) eta 6 abstentzio (Atarrabia Bai, PSN-PSOE eta EB).

## Osoko bilkura berezia
### 2014ko apirilak 28

**Zozketa, Europako Parlamentuko 2014ko hauteskundeetarako mahaikideak erabakitzeko.** Zinegotzi guztiak bertaratu ziren, Richard García (UPN) eta Ángel Larraya (Nabai 2011) izan ezik. Udalbatzak zozketa egin zuen Europako Parlamentuko 2014ko hauteskundeetarako mahaiak osatzeko.

## Osoko bilkura arrunta
### 2014ko apirilak 29

**Zerga kontrolerako 2014 eta 2015eko plana; proposamena.** Zinegotzi guztiak bertaratu ziren, Richard García (UPN) eta Ángel Larraya (Nabai 2011) izan ezik. Udalbatzak aho batez onetsi zuen zerga kontrolerako 2014 eta 2015eko planerako proposamena.

**Aurrekontua gauzatzeko oinarriak aldatzea eta aurrekontuko aldaketa, kontu-sail bat baliatzeko, zerga kontrolerako laguntza teknikoa kontratatze aldera.** Osoko bilkurak aho batez onetsi zuen aurrekontua gauzatzeko oinarrien aldaketa, bai eta aurrekontua aldatzea ere, kontu-sail bat baliatzeko, zerga kontrolerako programan laguntza teknikoa kontratatze aldera.

**Zerbitzu eta jardueren prezio publikoei buruzko araua; eranskinaren tarifetan zehazturik ageri dira.** Udalbatzak aho batez onetsi zuen zerbitzu eta jardueren prezio publikoei buruzko araua, hots, eranskinaren tarifetan zehazturik daude.

**Palestinarrei elkartasuna agertzeko mozioa.** Mozioa puntuz puntu bozkatu zen. Honatx lehen puntuaren eskaerak: Udalak Palestinari elkartasuna agertzea, bukaera ematea arabiarren lurren okupazioari eta kolonizazioari, eta legez kontrako horma eraistea; era berean, palestinarren oinarrizko eskubideen berdintasuna bermatzea; palestinarren itzulera sustatu, bermatu eta errespetatzea, Nazio Batuen 149. ebazpenak aitortzen duenarekin bat; eta gerra-krimenak egin dituztenak nazioarteko auzitegietan epaituko dituztela bermatzea; onetsi egin zen, 12 boto izan baitziren alde, eta 3, kontra (UPN). Honatx bigarren puntua: Udalak nazioarteari eskatzea behar diren ahalegin guztiak egin ditzala Israel presionatzeko, legezko betebeharrak bete ditzan, eta zuzenbide-estatua berresteko; halaber, palestinarren bakea eta segurtasuna babesteko. Onetsi zen, 12 boto izan baitziren alde, eta 3 kontra (UPN). Honatx hirugarren puntua: palestinarren bandera maiatzaren 15ean udaletxean paratzea eta herritarrak gonbidatzea gauza bera egin dezaten eta palestinarren alde antolatzen diren ekitaldietan parte har dezaten: onetsi zen, 8 boto izan baitziren alde (Bildu, PSN-PSOE, Pello Gurbindo zinegotzi atxiki gabea eta EB), eta 7, kontra (Atarrabia Bai eta UPN). Laugarren puntua, hauxe: Israelgo enbaxadari eskatzea helaraz diezaiela adierazpen hori Israelgo erakunde eskudunei. Onetsi zen, 12 boto izan baitziren alde, eta 3, kontra (UPN).

**Zangozako manifestua Esako urtegia handitzearen kontra: atxikimendua.** Osoko bilkurak bere atxikimendua erakutsi dio Zangozako manifestuari, Esako urtegia handitzeko proiektua geldiaraztea eskatzen duena. 12 boto izan ziren alde, eta 3, kontra (UPN). Manifestuak bestelako gauzak ere eskatzen ditu: ez dadila urtegia bete halako kota seguru batetik gora, egungo egonkortasun arazoak aztertu eta konpontzen ez diren bitartean; bat egitea inguruko udalek egin duten eskaerarekin Esako segurtasunaz azterlan independenteak egiteko; eta aurreikus dadila iraileko jardunaldietan sortutako alternatiba, bateragarri egiten baitu uretan beheiti dauden herrien segurtasun handiagoa urtegiaren erabilerekin.

## Pleno ordinario
### 27 de marzo de 2014

**Aprobación definitiva de expediente de modificación pormenorizada de la UC-3.** En una sesión plenaria a la que asistieron todos los concejales, el Pleno aprobó por unanimidad el expediente de modificación pormenorizada de la UC-3.

**Expediente de modificación presupuestaria para la incorporación de remanente de crédito para la realización de obras de reparación en las instalaciones deportivas de Martiket.** El Pleno acordó por unanimidad aprobar el expediente de modificación presupuestaria para la incorporación de un remanente de crédito de 32.072 euros para la realización de las obras de reparación de las instalaciones deportivas de Martiket.

**Expediente de modificación presupuestaria para el suministro del tatami y de la lona protectora en sustitución del existente.** La Corporación municipal acordó por unanimidad aprobar el expediente de modificación presupuestaria para solicitar un crédito de 5.000 euros para adquirir un nuevo tatami y lona protectora para las instalaciones deportivas de Martiket.

**Moción de UPN para la retransmisión de los plenos municipales.** El Pleno aprobó por 12 votos a favor y 5 abstenciones de UPN e IU-EB dejar el tema encima de la mesa para llevar a cabo un estudio pormenorizado sobre la posibilidad de retransmitir los plenos municipales.

**Moción de urgencia de UPN ante el fallecimiento del expresidente Adolfo Suárez.** Aprobada la urgencia de la moción de UPN, fue sometida a su aprobación punto por punto. El primer punto, en el que se proponía manifestar su pesar y trasladar la condolencia a la familia Suárez Illana, fue aprobado por 10 votos a favor de UPN, Atarrabia Bai, PSN-PSOE y el concejal no adscrito Pello Gurbindo y 7 abstenciones de Bildu, Nabai 2011 e IU-EB. El segundo punto, en el que se reconocía la contribución de Adolfo Suárez al impulso y consolidación de la democracia y libertad, fue rechazado por 11 votos en contra de Bildu, Atarrabia Bai, Nabai 2011 y Pello Gurbindo, 5 votos a favor de UPN y PSN-PSOE y 1 abstención de IU-EB. El tercer punto, en el que se destacaba su figura como ejemplo de actitudes democráticas y como defensor del interés común, del diálogo, la

**Udalaren osoko bilkuren aktak Udalaren webgunean ikusgai daude: www.villava.es // Las actas de los plenos municipales se pueden consult**




FRENAUTO
FRENOS DEL AUTOMOVIL
Ricardo Bel, s/n
Tel. 948 33 24 33
31610 VILLAVA

concordia y la tolerancia, fue rechazado por 11 votos en contra, 4 a favor de UPN y 2 abstenciones de PSN-PSOE e IU-EB. Y el cuarto punto, en el que se proponía sumarse al homenaje de la sociedad y de las instituciones guardando un minuto de silencio en la sesión plenaria del 27 de marzo, fue rechazado por 7 votos en contra de Bildu, Nabai 2011 y Pello Gurbindo, 4 votos a favor de UPN y 6 abstenciones de Atarrabia Bai, PSN-PSOE e IU-EB.

## Pleno extraordinario
### 28 de abril de 2014

**Sorteo para la composición de las mesas electorales para las elecciones al Parlamento Europeo 2014.** En una sesión plenaria a la que asistieron todos los ediles excepto Richard García (UPN) y Ángel Larraya (Nabai 2011), la Corporación municipal celebró el sorteo para la composición de las mesas electorales para las elecciones al Parlamento Europeo 2014.

## Pleno ordinario
### 29 de abril de 2014

**Propuesta de Plan de Control Tributario para los ejercicios de 2014 y 2015.** En una sesión plenaria a la que asistieron todos los concejales excepto Richard García (UPN) y Ángel Larraya (Nabai 2011), la Corporación municipal aprobó por unanimidad la propuesta de Plan de Control Tributario para los ejercicios de 2014 y 2015.

**Modificación de las bases de ejecución y modificación presupuestaria para habilitar una partida para la contratación de la asistencia técnica en el Programa de Control Tributario.** El Pleno aprobó por unanimidad tanto la modificación de las bases de ejecución como la modificación presupuestaria para habilitar una partida para la contratación de la asistencia técnica en el Programa de Control Tributario.

**Norma reguladora de los precios públicos por la prestación de servicios o la realización de actividades especificadas en las tarifas del anexo.** La Corporación municipal aprobó por unanimidad la norma reguladora de los precios públicos por la prestación de servicios o la realización de actividades especificadas en las tarifas del anexo.

**Moción en solidaridad con el pueblo palestino.** La moción fue votada por puntos. El primer punto, en el que se mostraba su solidaridad con Palestina y se pedía el cese de la ocupación y colonización de las tierras de los árabes, y la demolición del muro ilegal; la garantía de la igualdad de derechos fundamentales a la población palestina; la promoción, el respaldo y el respeto al retorno de la población palestina tal y como reconoce la resolución 149 de Naciones Unidas; y la garantía de que quienes han cometido crímenes de guerra respondan en tribunales internacionales, fue aprobado por 12 votos a favor y 3 en contra de UPN. El segundo punto, en el que el Ayuntamiento solicitaba a la comunidad internacional que ponga todos los medios para presionar a Israel para que cumpla sus obligaciones legales y para afirmar el Estado de derecho y salvaguardar la paz y seguridad de la población palestina fue aprobado por 12 votos a favor y 3 en contra de UPN. El tercer punto, en el que se proponía izar la bandera palestina el 15 de mayo e invitar a la ciudadanía a que haga lo mismo y tome parte en las actividades que se organicen en solidaridad con el pueblo palestino, fue aprobada por 8 votos a favor de Bildu, PSN-PSOE, el concejal no adscrito Pello Gurbindo e IU-EB y 7 en contra de Atarrabia Bai y UPN. El cuarto punto, en el que se solicitaba a la Embajada de Israel que traslade esta declaración a las instituciones competentes en Israel, fue aprobado por 12 votos a favor y 3 en contra de UPN.

**Adhesión al manifiesto de Sangüesa-Zangoza contra el recrecimiento de Yesa.** El Pleno aprobó por 12 votos a favor y 3 en contra de UPN adherirse al manifiesto de Sangüesa-Zangoza a favor de la paralización del proyecto de recrecimiento del embalse de Yesa; para que no se permita el llenado del embalse por encima de una cota segura, mientras no se estudien y resuelvan los problemas de estabilidad existentes; para apoyar la solicitud de los ayuntamientos afectados de realizar estudios independientes sobre la seguridad de Yesa; y para que se contemple la alternativa surgida de las jornadas de septiembre, que compagina el aumento de la seguridad de las poblaciones aguas abajo con el mantenimiento de los usos del embalse.

tar en la página web del Ayuntamiento: **www.villava.es**

**Udaltzaingoa > Policía Municipal**

## ■ Txakurrak zorrotzago kontrolatu nahia

Herriko auzokide aunitzek egindako kexak direla eta, udaltzaingoak txakurren jabeei gogorarazi nahi die bete egin behar dutela konpainiako animaliak edukitzeari buruzko udal ordenantza. Udal araudiarekin bat, jabeak behartuta daude beren animalien gorozkiak eremu publikotik biltzera, ez dituzte animaliak inor gabe eta laxorik utzi behar erosketetan ari diren bitartean, txakur aunitz zaunka hasten baitira, eta etxean lasai dauden auzokideei eragozpenak sortzen dizkiete.
Bi betebehar horietako edozein betetzen ez badute, udaltzaingoak kasuan kasuko salaketa jarriko dio txakurraren jabeari, bai eta dagokion zehapena ere.

## Más control sobre los perros

Ante las numerosas quejas planteadas por vecinos y vecinas de la localidad, la Policía Municipal quiere recordar a los propietarios y propietarias de perros que deben cumplir la ordenanza municipal relativa a la tenencia de animales de compañía. La normativa municipal obliga a los dueños de los perros a recoger de la vía pública los excrementos de sus animales y a no dejarlos solos y atados en la calle mientras ellos realizan las compras, ya que muchos se ponen a ladrar y ocasionan molestias al vecindario que está descansando en su casa.



En caso de incumplimiento de cualquiera de estas dos obligaciones, la Policía municipal impondrá la correspondiente denuncia y sanción al dueño o dueña del perro. ■

## ■ Lapurretak adinekoei; udaltzaingoaren ohartarazpena

Udaltzaingoak herriko adinekoak ohartarazi nahi ditu ez fidatzeko hurbiltzen zaizkien ezezagunez eta, inolako susmorik badute, udaltzainei jakinarazteko. Izan ere, azken asteotan, herriko adineko batzuei bitxiak lapurtu dizkiete. Honatx nola jokatzen duten susmagarriek: karrikan bertan adinekoei besarkada amultsuak ematen dizkiete eta bitxien nahiz erlojuen itxierak manipulatzen dituzte. Gainera, mugitzeko arazoak dituen jendeaz baliatzen dira bereziki, hau da, makuluak, aulki gurpildunak, eskumakilak… erabiltzen dituztenez. Atarrabian lapurretan aritu direnak Iruñean atxilotu dituzte, herritarren laguntzari esker.

## La Policía Municipal alerta de robos a personas mayores

La Policía Municipal advierte a las personas mayores de la localidad que desconfíen de los desconocidos que se les acerquen y que alerten a los agentes ante cualquier sospecha. Durante las últimas semanas se han producido varias sustracciones de joyas a personas mayores en el municipio. El "modus operandi" de los sospechosos es abordar a los ancianos con efusivos abrazos en la calle y manipular los cierres de las cadenas de joyas y relojes. Además, se aprovechan especialmente de las personas que padecen algún problema de movilidad (muletas, sillas de rueda, bastones…). En el caso de Villava, los autores de las sustracciones pudieron ser interceptados y detenidos en Pamplona gracias a la colaboración ciudadana. ■

talleres Villava
Reparación integral de:
• chapa • mecánica
• pintura • electricidad
POLÍGONO LANDAZABAL, PARCELA 1, NAVE 8
TEL.: 948 13 02 30 • FAX: 948 38 29 60

# Etorkizuneko Atarrabia

**Gizarteak herria birdiseinatzeko prozesua bukatu ondoren, Hirigintza Batzordeak dagoenekoz zehaztu du zer ildo orokorretan oinarrituko den Udalaren Plan Orokorra.**

### LURZORUAREN ANTOLAKETA

Udalaren Plan Orokorraren ardatz nagusia lurzorua antolatu eta garatzea izanen da, hainbat gauza kontuan harturik, hala nola uholdeen inguruko arazoak, industriak herriaren erdigunetik kanpora ateratzea eta herria orekatasunez haztea. Horrela, ibai bazterreko eremu batzuk eraikinik gabe utziko dira, uholderik ez izateko; lurzoruaren erabilerak aldatuko dira, erdiguneko industriak kanpora ateratzea sustatzeko eta etxebizitzak eraiki ahal izateko. Eta antolaketa berriak natur inguruneak errespetatuko ditu, hala Ezkaba mendia nola Ultzama ibaia, eta etxebizitza kopuruaren hazkunde orekatua sustatuko du. Lurraldea okupatzeko estrategia eta ereduaren arabera (LOEE), gehienez ere 450 etxebizitza eginen dira.

# La Villava del futuro

**Una vez concluido el proceso participativo para rediseñar la localidad, la Comisión de Urbanismo ya ha definido las líneas generales en las que se basará el Plan General Municipal.**

### ORDENACIÓN DEL SUELO

El principal eje del Plan General Municipal será la ordenación y desarrollo del suelo teniendo en cuenta los problemas de inundación, la salida de las industrias del centro urbano y el crecimiento equilibrado del pueblo. Para evitar anegaciones se dejarán zonas sin edificaciones en los márgenes del río.

Para facilitar la salida de las industrias del centro urbano se establecerán cambios de uso del suelo, que pasará de industrial a residencial.

La nueva ordenación se realizará respetando los entornos naturales, tanto el monte Ezkaba como el río Ultzama, y propiciando un crecimiento equilibrado del número de viviendas, que según la EMOT está fijado en un máximo de 450 viviendas.






**Herria nola dagoen aztertzeko eta ideiak emateko abiarazitako prozesuan auzokide ugarik parte hartu dute; horra hor, adibidez, ezkerreko taldea. / En el proceso participativo puesto en marcha para analizar la situación del pueblo y la aportación de ideas han participado vecinos y vecinas, caso del grupo de la izquierda.**

### KARRIKA NAGUSIA

Karrika Nagusirako asmoek kalearen izaera bereziari eutsi nahi diote, eta unean uneko arazoak ere konpontzea dute xede. Karrika Nagusiaren izaera eta fisionomia bermatze aldera, babestu beharreko eraikinen eta elementuen katalogoa prestatuko da, eta lanek bateragarri egin beharko dituzte hala kontserbazioa eta zaharberritzea nola birgaitze posiblea. Lehentasunez, karrika Nagusiaren eta San Andres kalearen arteko izkina moldatuko da,karrika Nagusiari sarrera egokia eta behar bezalakoa emate aldera.

### MUGIKORTASUNA

Kontuan hartuko da zer proposamen sortu den parte-hartze prozesutik, bidegorri sareak eta bideak zein izan daitezkeen aztertzeko: lehentasunezko ibilbideak ezarriko dira hala txirrindularientzat nola oinezkoentzat, bai eta bizikletak eta ibilgailuak batera ibiltzeko erreiak ere. Mugikortasun sareak herriko eremu guztien integrazioa sustatuko du eta sarbide erraza Ezkaba mendira.

### CALLE MAYOR

Las actuaciones en la calle Mayor buscarán mantener su carácter diferenciado y solucionar problemas puntuales. Para garantizar el carácter y fisionomía de la calle Mayor, se elaborará un catálogo de edificios y elementos que merezcan protección y los trabajos que se realicen tratarán de conciliar tanto la conservación y rehabilitación como la posible regeneración. Una de las actuaciones prioritarias será adecuar la esquina de la calle Mayor con la calle San Andrés para dotar a la calle Mayor de una entrada adecuada y representativa.

### MOVILIDAD

Se tendrán en cuenta las propuestas surgidas del proceso participativo para estudiar las posibles redes y vías ciclables: establecimiento de recorridos prioritarios, tanto ciclistas como peatonales, y carriles de coexistencia ciclista-vehículo. La red de movilidad promoverá la integración de todas las zonas del pueblo y un fácil acceso al monte Ezkaba.

## ■ Helbideratu gabeko ordainagirien ordainketa, ekainaren 20ra arte

Ekainaren 20an bukatuko da 2014ko zirkulazio zerga ordaintzeko epea. Helbideratuta ez dauden ordainagiriak hainbat tokitan ordaindu daitezke: Udaletxeko Herritarrak Hartzeko Bulegoan (karrika Nagusia, 22), Nafarroako Rural Kutxako edozein bulegotan, 012 telefonoaren bidez, eta udalaren webaren bitartez: www.villava.es

## El pago de los recibos no domiciliados, hasta el 20 de junio

El plazo para el pago del recibo correspondiente al impuesto de circulación del año 2014 finalizará el 25 de abril. El pago de los recibos no domiciliados podrá realizarse en la oficina de atención ciudadana (OAC) del Ayuntamiento, (calle Mayor, 22), en cualquier oficina de Caja Rural de Navarra, a través del teléfono 012 y a través de la web municipal www.villava.es. ■

## ■ Landazabal Multzoko bideak eta espaloiak, titularitate publikokoak

Landazabal Multzoan bizi direnek pasabide-lizentzia eskatu beharko dute Udalean ibilgailua garajean sartzeko, inguru horretako bideak, lorategiak eta espaloiak titularitate publikokoak baitira. Epaia joan den apirilaren 24an eman zuen Administrazioarekiko Auzi Epaitegiak lehen auzialdian, eta bere osoan ezetsi zuen Landazabal Multzoan bizi diren 50 lagunek tartekatutako demanda eta Udalari eman dio arrazoia; hau da, bideak, lorategiak eta espaloiak ez dira pribatuak udalaren jabari publikokoak baizik. Epaitegiak, halaber, esan du guztiz zuzena dela Udalak pasabide-lizentzia eskatzea eta auzokideek ibilgailua garajean sartzeko tasa ordaintzea, gainerako auzokideek ordaintzen duten bezala. Badago epaiaren kontra apelazioan jotzerik.

## Los viales y aceras del Grupo Landazábal, de titularidad pública

Los residentes del Grupo Landazábal que deseen introducir su vehículo en el garaje deberán solicitar licencia de vado al Ayuntamiento, ya que los viales, jardines y aceras de este espacio son de titularidad pública. La sentencia dictada en primera instancia por el Juzgado Contencioso-Administrativo nº 1 el pasado 24 de abril, desestima en su integridad la demanda interpuesta por 50 demandantes residentes en el Grupo Landazábal y confirma la teoría municipal de que las aceras, viales y jardines existentes en el Grupo no son bienes de titularidad privada sino bienes de dominio público municipal. Asimismo, el Juzgado estima plenamente ajustado a derecho que el Ayuntamiento exija la obtención de licencia de vado y el pago de la tasa para la introducción del vehículo en el garaje, como lo hace con el resto del vecindario. Esta sentencia puede ser recurrible en apelación. ■

## Gizarte Zerbitzuak > Servicios Sociales

### Hiri-udalekuak

Aurten, berriz ere bina hamabostaldi eskaintzen dira euskaraz eta gaztelaniaz, hiri-udalekuetan. 3tik 12 urtera bitarteko haurrentzat da. Izena emateko ordutegia hauxe da: 9:00etatik 14:00etara, astelehenetik ostiralera, jaiegunetan izan ezik. Gaztelaniazko hamabostaldiak uztailaren 16tik abuztuaren 1era eta abuztuaren 4tik 22ra izanen dira, eta euskarazkoak, berriz, abuztuaren 1etik 14ra eta 19tik 30era. Euskarazko udalekuetan parte hartzeko, ezinbestekoa da D ereduan ikastea.
75 euro ordainduko ditu haur bakoitzak hamabostaldiko (55 euro, bigarren seme-alabak, eta 45 euro, gainerako seme-alabek). Euskarazko tailerren kasuan, Karrikaluzeko bazkideek 60 euro ordainduko dute hamabostaldi bakoitzeko (48 euro, bigarren seme-alabak, eta 41 euro, gainerako seme-alabek).



### Colonias urbanas para el verano

Este año se ofertan nuevamente dos quincenas en euskera y dos en castellano de las colonias urbanas. Pueden apuntarse niños/as de 3 a 12 años. El horario es de 9:00 a 14:00 de lunes a viernes, excepto festivos.
Las quincenas en castellano son del 16 de julio al 1 de agosto y del 4 al 22 de agosto, y las de euskera, del 1 al 14 y del 19 al 30 de agosto. Para participar en las colonias en euskera es imprescindible estar matriculado/a en el modelo D. La cuota por quincena es de 75 euros (55 para el segundo hijo/a y 45 para el resto de hermanos/as). En el caso de los talleres en euskera, la cuotas para los socios/as de Karrikaluze es 60 euros la quincena (48 euros para el segundo hijo/a y 41 euros para resto de hermanos/as). ■

## Hezkuntza > Educación

### Guraso Eskola

Familiendako prestakuntza tailerrez gain, aurten bi jarduera egin dira ikastaroetan ari diren edo aritu diren lagun guztientzat. Horrela, martxoaren 14an, mugimenduaren eta dantzaren bidezko gorputz adierazpena lantzeko tailer bat eman zuen eskolako ama batek; Amaia Maisterrak. Maiatzaren 30ean, bestalde, zine-forum bat egin zen gurasoen eta seme-alaben harremanei buruz.

### Escuela de madres y padres

Además de los talleres de formación dirigidos a las familias, este año se han realizado dos actividades conjuntas a las que se ha convocado a todas las personas que participan o han participado en los cursos. El 14 de marzo hubo un taller de expresión corporal a través del movimiento y la danza que impartió una de las madres de la escuela, Amaia Maisterra. El 30 de mayo se celebró un cineforum en torno a las relaciones entre madres/padres e hijas/os. ■

## Euskera > Euskara




### Udalekuetan euskaraz ikasteko laguntzak

Atarrabiako Udalak, Euskara Zerbitzuaren bitartez, herriko familiei lagunduko die euskara hutsezko udako kanpaldien kostua finantzatzen, baldintza batzuk betetzen badituzte. Kanpaldiak D ereduan (eskola publikoan edo ikastolan) ari diren Lehen Hezkuntza eta DBHko ikasleentzat dira.
Diru-laguntzaren xede diren kanpaldiek josteta, kirol eta naturari lotutako edukiak proposatu behar dituzte. Deialdi horretatik kanpo daude Atarrabiako Udalaren bidez zuzenean edo zeharka kudeatzen diren kanpaldiak, diru-laguntza txertatua baitago familiek kanpaldi horietan ordaintzen duten kuotan. Era berean, ez da diru-laguntzarik emanen txango eta bidaientzat, ezta herrian edo inguruetan egiten diren beste jarduera batzuentzat ere, ez behintzat barnetegirik ez badago. Ikasleek Atarrabian erroldatuta egon beharko dute kanpaldiak dirauen bitartean, laguntza eskatzeko unean eta laguntza ematen den ala ez ebatzi arte. Udalak gehienez ere 6.900 euro bideratuko ditu laguntza horietara.
Atarrabiako Euskara Zerbitzuak kanpaldi-eskaintza askotariko bat helarazi die foileto batean ikasleei herriko ikastetxeen bidez, Nafarroako beste udal batzuetako euskara zerbitzuekin batera argitara emandakoa. Hala ere, deialdia baliozkoa da beste edozein kanpaldirentzat, nahiz eta foiletoan sarturik ez egon, betiere baldintzak betetzen badira.

### Ayudas al aprendizaje de euskera en campamentos de verano

El Ayuntamiento de Villava, a través del Servicio de Euskera, ayudará a las familias a financiar el coste de los campamentos de verano desarrollados íntegramente en euskera para niños y niñas de la localidad de Primaria y ESO estudiantes del modelo D (escuela pública o ikastola), siempre y cuando se den una serie de condiciones.
Los campamentos sujetos a ayuda deben proponer contenidos lúdicos, deportivos y/o de relación con la naturaleza. Quedan excluidos de esta convocatoria los gestionados directa o indirectamente a través del Ayuntamiento de Villava, o bien subvencionados directamente por éste, al llevar éstos ya deducida la subvención en la cuota que pagan las familias. Tampoco serán objeto de subvención las excursiones o viajes ni otras actividades en la localidad o zonas próximas que no requieran internado. El alumnado deberá estar empadronado en Villava mientras dure el campamento, en el momento de solicitar la ayuda y hasta su resolución. El Ayuntamiento va a destinar un máximo de 6.900 € a este programa de ayudas.
El Servicio de Euskera de Villava ha hecho llegar al alumnado a través de los centros escolares de la localidad un folleto con una variada oferta de campamentos, soporte informativo editado de manera mancomunada con otros servicios de euskera de ayuntamientos navarros. No obstante, la convocatoria es válida para cualquier otro campamento, aunque no esté incluido en el folleto, siempre que se cumplan los requisitos. ■

### Europako hauteskundeak; emaitzak

Europako Hauteskundeak maiatzaren 25ean egin ziren, eta Atarrabiako parte-hartzea % 50,33 izan zen (3.896 lagunek bozkatu zuten). Hona hemen emaitzak alderdiz alderdi (ez dira ageri botoak jaso zituzten alderdi guztiak).

| | | | |
|---|---|---|---|
| EH Bildu | 1.309 | Podemos | 345 |
| PP | 590 | UPyD | 161 |
| PSOE | 453 | EAJ | 95 |
| I-E | 420 | C´s | 46 |

### Resultados de las elecciones europeas

En la jornada electoral del 25 de mayo al Parlamento Europeo,Villava registró una participación del 50,53% (votaron 3.896 personas). Del total de emitidos, 50 votos fueron nulos y 93 en blanco. En la tabla, los resultados. No figuran formaciones de resultado menor. ■

### Nobedadeak Berdintasun Zerbitzuan

Maiatzaren bukaeratik, Atarrabiako Berdintasun Alorra normaltasunez ari da bere zerbitzua ematen, Udalak Irune Gaston Ripa kontratatu baitu, titularra baja hartuta baitago gaixotasunak eraginda. Edozein galdera egiteko edo hitzordua eskatzeko, hona hemen nora jo: 948 13 07 34 (luzapena: 207) eta posta elektronikoa: igualdad-mujer@villava.es

### Novedades en el Servicio de Igualdad

Desde finales de mayo, el Área de Igualdad de Villava viene prestando con normalidad su servicio tras la contratación por parte del Ayuntamiento de la técnica Irune Gaston Ripa en sustitución de la titular, de baja por enfermedad. Para cualquier consulta o solicitud de cita previa, los contactos son el teléfono 948 13 07 34 (extensión 207) y la dirección de correo electrónico igualdad-mujer@villava.es. ■



**Goian, Adrian, Juan Miguel (urrea), Héctor (zilarra) eta Silvia (zilarra). Behean: Daniel, Izai (urrea) eta Daniel.**

## ■ Judoaren garaipenak

Atarrabiako Udalaren Judo Eskolak eta Judo Klub Erice-k Nafarroako Kirol Jokoetan parte hartu zuten joan den otsailetik apirilera.
Benjaminetan, urre bat eta bi brontze eskuratu zituzten. Kimuetan, urre bat eta brontze bat. Infantiletan, urre bat, bi zilar eta brontze bat; eta kadeteetan, urre bat.



**Iban Buldain eta Juan Miguel Castillo, Eduardo Roblesekin batera.**

Bestalde, maiatzaren 9an, 10ean eta 11n Espainiako Judo Txapelketa egin zen Leganésen infantiletan eta kadeteetan, eta bertan Atarrabiako Udalaren Judo Eskolako eta Judo Klub Erice-ko bi ikasle aritu ziren (Nafarroako Federazioak deituta): Juan Miguel Castillok (infantiletan) zazpigarren egin zuen, eta Iban Buldain (kadetea) bigarrena izan zen (Espainiako txapeldunordea). Ibanek saio bakarra galdu zuen; hain zuzen ere, ordezkari andaluziarraren aurka jokatu zuen finala, benetan lehiatua.

## Éxitos del Judo

La Escuela Municipal Atarrabia de Judo y el Judo Klub Erice participaron en los Juegos Deportivos de Navarra celebrados durante los meses de febrero a abril.
En la categoría Benjamín, se obtuvieron 1 oro y 2 bronces. En alevín, 1 oro y 1 bronce. En categoría infantil, 1 oro, 2 platas y 1 bronce; y en cadetes, 1 oro.
Los días 9, 10 y 11 de mayo se celebró en Leganés el Campeonato de España de Judo Infantil y Cadete, en el que participaron los alumnos de la Escuela Muncipal de Judo / Judo Klub Erice (convocados por la Federación Navarra), Juan Miguel Castillo (categoría infantil), que obtuvo un meritorio 7º puesto, e Iban Buldain (cadete), que obtuvo un 2º puesto (subcampeón de España). El único combate que perdió Iban fue la disputadísima final con el representante andaluz. ■



## ■ II Kirol Jaia

Maiatzaren 27tik ekainaren 8ra, Atarrabian II Kirol Jaia egiten ari da; guztira 20tik gora jarduera izanen dira. Ekimenaren bidez, Udalaren Kirol Kontseiluak ikasturtean zer jarduera egiten diren erakutsi nahi die herriko auzokideei eta, horregatik, kirol saioak kalean bertan egiten dira. Parte-hartzaileek, bidenabar, ikasturte bukaera ospatzeko aukera dute.
Jaiaren antolaketan, gainera, Udaleko Kirol Zerbitzua elkarlanean aritzen da herriko kirol klubekin, udalaren kirol eskolekin eta Masquatro-rekin, hau da, Atarrabiako kirol instalazioak kudeatzen dituen enpresarekin.
Jarduera guztietatik, 11 erakustaldiak izanen dira eta gainerako 9etan, berriz, edonork parte hartzen ahal du. Egitarau osoa Udalaren webean dago eskura (www.villava.es).

## II Fiesta del Deporte

Desde el 27 de mayo y hasta el 8 de junio, Villava está celebrando la II Fiesta del Deporte con un programa de más de 20 actividades. El Consejo Municipal de Deportes pretende con esta iniciativa dar a conocer a los-as vecinas-os de Villava las actividades que se realizan durante el curso escolar sacándolas a la calle. Los y las participantes, además, celebran así su fin de curso.
En la organización de la fiesta, el Servicio de Deportes municipal cuenta con la colaboración de los clubes deportivos de la localidad, las escuelas deportivas municipales y Masquatro, empresa que lleva la gestión de las instalaciones deportivas de Villava.
De las 20 actividades programadas, 11 serán exhibiciones y las 9 restantes actividades abiertas a la participación de quienes quieran hacerlo. Se puede acceder al programa completo en la web municipal (www.villava.es). ■

## ■ Zumba ekainean ere bai

Ekainaren 2tik 18ra, astelehen eta asteazkenetan, ordubeteko zumba saioak izanen dira pausaldirik gabe (20:00etatik 21:00etara), Martiket igerilekuetan. Andrea Moretón izanen da monitorea. Abonatuek 20 euro ordainduko dute; 26 euro erroldatu abonatu gabeek, eta 30 euro, erroldatu gabeko ez abonatuek. Izena Martiketeko harreralekuan eman behar da ekainaren 1era arte (igandea).

## Zumba también en junio

Los lunes y miércoles entre los días 2 y 18 de junio habrá sesiones de zumba de una hora de duración sin pausa (de 20:00 a 21:00) en las piscinas de Martiket. La monitora de la actividad es Andrea Moretón. El precio es de 20 € para personas abonadas y de 26 y 30 € para no abonados empadronados y no abonados sin empadronar, respectivamente. Inscripciones, en la recepción de las piscinas de Martiket hasta el domingo 1 de junio. ■



## ■ Txapeldunak!

Emakumezkoen Atarrabia aretofutboleko taldea izan da txapelduna kadeteetan, Nafarroako Kirol Jokoetako liga fasean. Zorionak!

## ¡Campeonas!

El equipo cadete femenino Atarrabia de futbol sala ha sido el campeón de la fase de Liga de los Juegos Deportivos de Navarra. ¡Enhorabuena! ■



## ■ Igerilekuak zabalik ekainaren 7tik irailaren 7ra

Herriko igerilekuak ekainaren 7tik irailaren 7ra egonen dira aurtengo udan zabalik, bi egun horiek barne. 9:00etatik 22:00etara egonen dira irekita. Urtero bezala, igerileku estalia hainbat egunez egonen da itxita mantentze lanetarako. Oraingo honetan, uztailaren 1etik 21era. Eta, urtero udan ohikoa izaten den bezala, ez da Martiketen sartzerik izanen igerileku estalitik. Argibideak, 948 33 49 20 zenbakian.

## La campaña de piscinas, del 7 de junio al 7 de septiembre

La campaña de verano de las piscinas será este año del 7 de junio al 7 de septiembre, ambos días incluidos. El horario de apertura, de 9:00 a 22:00. Como todos los años, la piscina cubierta permanecerá cerrada unos días para tareas de mantenimiento. En esta ocasión será del 1 al 21 de julio. Y, como es también habitual cada verano, no se podrá acceder a Martiket desde la piscina cubierta. Más información, en el 948 33 49 20. ■

AXA

# reinventando / los seguros

Por 5º año consecutivo,
Axa ha sido reconocida como
la 1ª Compañía de
Seguros a nivel mundial

www.bestglobalbrands.com




*

**Expertos en seguros de comunidad.**
Acérquese a nuestra oficina con la póliza de su comunidad y le mejoraremos el precio y/o las coberturas.

*

**Venga con la copia de su póliza de comunidad.**
Le entregaremos un práctico mapa de carreteras.

*

**Sin compromiso.**
Estudiaremos su póliza actual y le aconsejaremos sobre la opción de protección que más se ajuste a sus necesidades.

Agencia Marcos Soto S.L.
Calle La Fuente, 9 bajo (frente al Centro de Salud)
31600 Burlada-Burlata

Tel. 948 134 959 – 601 153 489
fran.marcos@agencia.axa-seguros.es

## Jarduerak udarako

Martiketek jarduera sorta oparoa eskainiko du udarako bai haurrentzat bai helduentzat. Jarduera batzuk uretan dira egitekoak, eta beste batzuk, lehorrean. Bi txanda izanen dira; lehena uztailaren 16tik abuztuaren 5era bitarte, eta bigarrena, berriz, abuztuaren 7tik 27ra. Aurtengo gauza berrietako bat da ludoteka zerbitzua ere eskainiko dela, 9:00etatik 12:00etara, uztailaren 21etik abuztuaren 22ra.
Uretako jardueren artean, igeriketa dago, bai haurrentzat bai helduentzat, hainbat mailatan, gaztelaniaz eta euskaraz. Lehorreko jarduerei dagokienez, tenisa eta paddela haurrentzat nahiz 15 urtetik gorakoentzat; pilates, sumba, indoor zikloa eta acuagym. Abonatuek ekainaren 16ra arte izanen dute epea izena emateko; ez-abonatuek, ekainaren 23tik aurrera.
Masquatro Martiket kudeatzen duen enpresa da eta foileto bat argitaratu eta banatu du etxez etxe, argibide zehatzez beterik. Informazioa, gainera, eskura dago udalaren webean (www.villava.es).

## Actividades para el verano

Martiket oferta para el verano una variada parrilla de actividades acuáticas y en seco para niños y niñas y personas adultas que se desarrollarán en dos tandas, la primera entre el 16 de julio y el 5 de agosto y la segunda entre el 7 y el 27 de agosto. Una de las novedades de este año es que se oferta también un servicio de ludoteca de 9:00 a 12:00 del 21 de julio al 22 de agosto.
Las actividades acuáticas ofertadas, incluyen natación infantil y adulto en distintos niveles y en castellano y euskera. En cuanto a las opciones en seco, tenis y paddel tanto infantil como para mayores de 15 años; pilates, zumba, ciclo indoor y acuagym. Inscripciones para personas abonadas, desde el 16 de junio; para no abonadas, desde el 23 de junio.
Masquatro, empresa gestora de las instalaciones de Martiket, ha editado un folleto con la información completa que ha sido buzoneado a todos los vecinos y vecinas de Villava. También está disponible la informamción en la web municipal (www.villava.es). ■

## Gorputz ariketak ere ekainean Kirol Bonuarekin

Udalaren kirol jardueren bigarren lauhilekoa maiatzaren 31n bukatu da, baina jardueraren bat egiten jarraitu nahi dutenek Kirol Bonuaren aukera izanen dute ekainaren 2tik 19ra.
Bonuaren bidez, eskaintzen diren jarduera guztietan aritzeko aukera izanen dute izena emandakoek (entrenamendu funtzionala, GAP, pilates, pilates fitball, pilates chiball, aquaerobic, aquagym, igeriketa zuzendua eta indoor zikloa), 10:00etatik 11:00etara edo 19:00etatik 20:00etara (ikusi taula). Abonatuentzako prezioa 30 euro da, eta ez-abonatuentzako, berriz, 40 eta 45 euro, hurrenez hurren erroldatuentzat eta erroldaturik ez daudenentzat. Erkuden Almagro arduratuko da jarduera emateaz. Izena emateko epea ekainaren 1ean bukatuko da, Martiketeko harrera-lekuan.

## Ejercicio también en junio con el Bono deporte

Quienes estén interesados en continuar realizando alguna actividad tras la finalización el 31 de mayo del segundo cuatrimestre de las actividades deportivas municipales, tiene a su disposición la fórmula del Bono deporte, con vigencia del 2 al 19 de junio.
Este Bono permite a la persona inscrita participar en todas las actividades ofertadas (entrenamiento funcional, GAP, pilates, pilates fitball, pilates chiball, aquaerobic, aquagym, natación dirigida y ciclo indoor), de 10:00 a 11:00 de la mañana o de 19:00 a 20:00 (ver cuadro). El precio para las personas abonadas es de 30 € y para los no abonados de 40 y 45 €, para empadronados y no empadronados, respectivamente. La monitora de la actividad es Erkuden Almagro. La inscripción, hasta el domingo 1 de junio en la recepción de las instalaciones de Martiket. ■

| | | | |
|---|---|---|---|
| **ASTELEHENA 2 LUNES** | **ASTEARTEA 3 MARTES** | **ASTEAZKENA 4 MIERCOLES** | **OSTEGUNA 5 JUEVES** |
| ENTRENAMENDU FUNTZIONALA | PILATES | AQUAEROBIC | INDOOR ZIKLOA |
| ENTRENAMIENTO FUNCIONAL | PILATES | AQUAEROBIC | CICLO INDOOR |
| **ASTELEHENA 9 LUNES** | **ASTEARTEA 10 MARTES** | **ASTEAZKENA 11 MIERCOLES** | **OSTEGUNA 12 JUEVES** |
| ENTRENAMENDU FUNTZIONALA | PILATES FITBALL | AQUAGYM | INDOOR ZIKLOA |
| ENTRENAMIENTO FUNCIONAL | PILATES FITBALL | AQUAGYM | CICLO INDOOR |
| **ASTELEHENA 16 LUNES** | **ASTEARTEA 17 MARTES** | **ASTEAZKENA 18 MIERCOLES** | **OSTEGUNA 19 JUEVES** |
| GAP | PILATES CHIBALL | IGERIKETA ZUZENDUA | INDOOR ZIKLOA |
| GAP | PILATES CHIBALL | NATACIÓN DIRIGIDA | CICLO INDOOR |



■ **UDALETXEAN HARRERA BETI ONAK TALDEKO NESKEI.** Joan den maiatzaren 22an, Udalak Beti Onak emakume taldea hartu zuen Batzar Aretoan. Udalbatzak, horrela, atarrabiar guztien izenean hartu nahi izan du aintzat herriko taldeak egin duen denboraldi bikaina; gogoratuko dugu Ohorezko Mailara igotzeko txapelketan parte hartu zuela joan den apirilean, Oviedon. Ez zuen lortu, baina bidezkoa zen omenaldia egitea, partida bakar bat galdu gabe irabazi baitute liga.
**RECIBIMIENTO EN EL AYUNTAMIENTO ALAS CHICAS DEL BETI DE BALONMANO.** El Ayuntamiento recibió el pasado 22 de mayo por la tarde en el Salón de Plenos al equipo femenino de balonmano del Beti Onak. De esta manera, la Corporación municipal quiso reconocer en nombre de toda la ciudadanía de Villava su brillante temporada, que les llevó a disputar el pasado abril en Oviedo su ascenso a División de Honor. No lo pudo conseguir, pero era justo rendirles homenaje tras ganar la liga sin perder un sólo partido. ■

La gasolinera más barata de la zona
Máxima calidad al mejor precio
Limpieza integral:
Box, tren de lavado, aspiradores...
Productos navarros:
Tienda con fruta, verdura, aceite, vino... y además, pan, periódicos, licores...

Grupo AN DESDE 1910
24h Autoservicio
Todo tipo de tarjetas bancarias
Polígono Areta
Rotonda de acceso carretera que une Olaz Chipi y Villava

Amabera
Centro Podológico
Amaia Berasategui
amaia.berasa@gmail.com
C/ Oihanpea, 3.
Esquina con C/ Ricardo Bel
Villava
Cita previa: 634 41 69 69

TALLERES EZKABA
Automóvil · Furgonetas · Autocaravanas
EZKABA
Mecánica · Electricidad · Diagnosis
talleresezkaba@gmail.com
www.talleresezkaba.com
Pol. Ind. Mugazuri, 9 - calle C
Tel. 948 488 418
31600 Burlada-Burlata

## ■ "Petri Atarrabiako" XXV. haur kontagintza lehiaketako irabazleak

Joan den maiatzaren 9an, "Petri Atarrabiako" haur kontagintza lehiaketako sariak eman zitzaizkien aurtengo irabazleei; guztira, 176 lan izan dira gaztelaniaz, eta 138, euskaraz. Gaztelaniazko Lehen Hezkuntzako III. zikloan, irabazlea "El Dios de las letras" lana izan da, Atargiko Julen Larraya Jimenok idatzia, eta bigarrena "Peio de Atarrabia S. XXI" lana izan da, Atargiko ikasle batek idatzia. DBHko 1. eta 2. mailan, lehen saria "Daniel y Sara" lanarentzat izan da, La Presentación ikastetxeko Andrea Nicolás Duarte ikaslearena, eta bigarrena, berriz, "Trágica excursión" da, La Presentación ikastetxeko Ihesenia Aspeti Córdobak idatzia.
Euskarazko modalitatean, "Anai-arrebak lagunak betirako" lana izan da irabazlea, Paz de Ziganda ikastolako Aileen Ripa Sarriesek idatzia, eta bigarrena "Ur tantak gorputz osotik izan nahi zituen zuhaitza" izan da, Paz de Zigandako Andrea Ozkoidi Pérez ikaslearena. DBHko 1. eta 2. mailan, berriz, lan irabazlea "200 urte" izan da, Pedro de Atarrabia institutuko Miren Santos Erizek idatzia. Bigarren saria "Gaur egun"lanari eman zaio, Paz de Zigandako Maialen Goñi Bernabek egina.

## Ganadores del XXV certamen de narrativa infantil "Pedro de Atarrabia"

El pasado 9 de mayo tuvo lugar la entrega de premios a los/las ganadores del concurso de narrativa infantil "pedro de Atarrabia" de este año, al que han concurrido 176 obras en castellano y 138 en euskera.
En la modalidad de castellano, en la categoría III Ciclo de Primaria, el trabajo ganador fue el titulado "El Dios de las letras", del alumno de Atargi Oscar López Urroz. Quedó segundo "Peio de Atarrabia S. XXI", de Julen Larraya Jimeno, también de Atargi. En el tramo 1º y 2º de ESO, el primer premio fue para "Daniel y Sara", de la alumna de La Presentación Andrea Nicolás Duarte, y el segundo para "Trágica excursión", de Ihesenia Aspeti Córdoba, del mismo centro.
En la modalidad de euskera ganó la obra titulada "Anai-arrebak lagunak betirako", de la alumna de Paz de Ziganda Aileen Ripa Sarries. Quedó segundo "Ur tantak gorputz osotik izan nahi zituen zuhaitza", de Andrea Ozkoidi Pérez, también de Paz de Ziganda. En la categoría 1º y 2º de E.S.O., el trabajo ganador fue "200 urte", de la alumna del instituto Pedro de Atarrabia Miren Santos Erize. El segundo premio fue para "Gaur egun", de Maialen Goñi Bernabe, de Paz de Ziganda. ■



## ■ Gau Zuria ekainaren 21ean

Iazko ekainean izandako arrakasta ikusita, Gau Zuria kulturaz beterik itzuliko zaigu karrika Nagusira eta inguruetara, ekainaren 21ean. Izan ere, 20:00etatik aurrera eta goizeko 02:00ak pasatu arte, bata bestearen atzetik etorriko dira antzerki, olerki, dantza, musika eta gastronomia ekitaldiak, bai eta erakusketak ere, dendena erraldoien konpartsak ederki giroturik, eta gaitero, dultzainero eta txistularien soinuak lagundurik. Egitarau osoa aldizkari honen agendan topatuko duzu (15. or.).
Doako kultur agerpena da, herriko erakunde eta artistak izanen dira ardatz, guztiak ere eskuzabaltasunez arituko dira, eta herritar guztientzat egonen da zabalik.

## Vuelve la Noche Blanca el sábado 21 de junio

Tras el éxito de la primera convocatoria en septiembre del año pasado, la Noche Blanca volverá a inundar de cultura la calle Mayor y alrededores el próximo 21 de junio. Desde las 20:00 hasta más allá de las 02:00 de la madrugada, se sucederán las citas de un programa muy especial que contiene teatro, poesía, danza, música, gastronomía, exposiciones y la compañía animada de la comparsa de Gigantes, que estará acompañada por gaiteros, dulzaineros y txistularis. El programa completo, en la agenda de este BIM (pag 15).
Esta manifestación cultural gratuita está protagonizada por las entidades y artistas locales, que colaboran de forma altruista, y está abierta a toda la ciudadanía. ■

## ■ Kontzertua: kantua eta desgaitasuna

Musikaren eta Arte Eszenikoen Nafarroako Foroak oso kontzertu berezia eskainiko du ekainaren 5ean, ostegunarekin, 20:00etatik aurrera, kantua, desgaitasuna eta buruko gaixotasuna batzeko. Musika emanaldian hainbat talde arituko dira, hala nola Javier de Elcano egoitzako abesbatza, Eugenia Echarren Kantu Eskolako abeslari eta ikasleak, eta Atarrabiako erretiratuen elkarteko abesbatza. Kultur Etxeko antzokian. Sarrerak 3 €-tan daude salgai.

## Concierto Canto y discapacidad"

El Foro Navarro de la Música y las Artes Escénicas ofrece el jueves 5 de junio a las 20:00 un concierto muy especial que une el canto, la discapacidad y la enfermedad mental. Intervienen en este montaje musical el coro de la Residencia Javier de Elcano, cantantes y estudiantes de la Escuela de Canto Eugenia Echarren y el coro del club de jubilados de Villava. Tendrá lugar en el teatro de la Casa de Cultura y el precio de la entrada es 3 €. ■



## ■ Abesbatza kantaldia ekainaren 7an

Ciudad de Astorga Excelsior abesbatzak kontzertua emanen du ekainaren 7an, 20:00etatik aitzinera, Kultur Etxeko antzokian. Sarrera doan. 40 ahotsez osaturiko talde mistoa da, ibilbide luzea egina du eta errepertorio askotarikoa abesten du musika polifonikoan. 2004az geroztik, Luis Miguel Abello dute zuzendari.

## Concierto Coral el 7 de junio

La Coral Ciudad de Astorga Excelsior ofrecerá el 7 de junio a las 20:00 un concierto con entrada libre en el teatro de la Casa de Cultura. Se trata de un coro de 40 voces mixtas con una larga trayectoria y repertorio variado de música polifónica. Desde 2004, está al frente de la dirección de la coral Luis Miguel Abello. ■

## ■ Benito Lertxundiren kantaldia

Oriotarra Indurain Anaiak kiroldegian arituko da irailaren 6an, larunbatarekin, 21:30etan hasita. Sarrerek 18 euro balioko dute Atarrabiako auzokideentzat eta aurreko salmentan, eta 20 €, berriz, leihatilan. Salgai egonen dira Kultur Etxean eta www.villava.es / www.atarrabia.es webean. Benito Lertxundik bere azken lana aurkeztuko du, "Oroimenaren oraina", eta kanturik ezagunenetako batzuk ere emanen ditu.



## Benito Lertxundi, en concierto

El Polideportivo Hermanos Induráin acogerá a las 21:30 del sábado 6 de septiembre un concierto de Benito Lertxundi. Las entradas costarán 18 euros para los vecinos de Villava y en venta anticipada y 20 euros en taquilla.Las entradas se pueden adquirir en la Casa de Cultura y en www.villava.es / www.atarrabia.es. El cantautor vasco presentará su último trabajo, "Oroimenaren oraina" y repasará sus temas más conocidos. ■

## ■ Kultura sustatzeko laguntzak

Udalak, aurten, 29.094 € bideratuko ditu herriko entitate eta elkarteek egindako kultur ekitaldiak bultzatu eta sustatzera. Banaketa honela gelditu da:

## Ayudas al fomento cultural

El Ayuntamiento va a destinar este año 29.604 € al fomento y promoción de diferentes actos culturales realizados por las entidades y asociaciones de la localidad. El reparto queda como sigue:

| ERAKUNDEA / ENTIDAD | JARDUERA / ACTIVIDAD | ZENBATEKOA /IMPORTE |
|---|---|---|
| Karrikaluze | EuskaldunON+ bestelako emanaldiak +otras actuaciones | 7.237 € |
| Etxe-Beltza | Atarrabiako Eguna | 6.236 € |
| Etxe-Beltza | Olentzero eta Inauteriak / Olentzero y Carnavales | 3.428 € |
| Asociación Cabalgata | Errege kabalkada / Cabalgata de Reyes | 3.200 € |
| Cofradía del Relleno | VIII Batzarra / VIII Capítulo | 2.194 € |
| Asociación de Belenistas | Eguberri ekitaldiak, XX. urtemuga / Actos navidad, XX Aniversario | 2.500 € |
| Foto 67-M | Argazki astea / Semana fotográfica | 1.500 € |
| Mikelats Dantza | Dantzari Eguna txiki | 972 € |
| Paz de Ziganda | Xake txapelketa / Torneo Ajedrez | 547 € |
| Escuela de Ciudadanía | Hitzaldi zikloa / Ciclo conferencias | 840 € |
| Atarrabi Medi Taldea | Mendi ikus-entzunezkoen astea / Semana audiovisuales montaña | 375 € |
| Asociación Jaiorama | Kontzertuak / Conciertos | 575 € |

## Gizarte eta kultur ikastaroak aisia sortzailerako

Kultura Zerbitzuak eskaintzen ditu eta 16 urtetik gorakoentzat dira. Atarrabian erroldaturiko lagunek abuztuaren 27tik irailaren 16ra bitarte izanen dute izena emateko epea, baina bakar-bakarrik 902 217 012 zenbakian, 8:00etatik 19:00etara, astelehenetik ostiralera. Erroldatuta ez daudenek irailaren 17tik 19ra eginen dute matrikula, tokirik izanez gero, Kultur Etxean bertan, 16:00etatik 21:00etara. Irakurketa Klubean ari diren erroldatuek ez dute deus ere ordaindu beharko, eta erroldatuta ez daudenek 25 euro. Nafarroako Historia ikastaroaren prezioa 50 euro da erroldatuentzat, eta 65 euro, erroldaturik ez daudenentzat. Euskal dantzen prezioa 70 eta 95 euro da, hurrenez hurren; Argazkigintzak, 86 eta 128 € balio du, hurrenez hurren; Ingelesa bidaiarientzat ikastaroak ere 86 eta 128 euro; Pinturak, 125 eta 170 euro; eta, azkenik, Eskulan ikastaroak, 125 euro erroldatuentzat, eta 170 euro, erroldaturik ez daudenentzat.

## Cursos socioculturales para un ocio creativo

Estos cursos socioculturales ofertados por el Servicio de Cultura están dirigidos a personas mayores de 16 años. Las personas empadronadas en Villava-Atarrabia pueden inscribirse del 27 de agosto al 16 de septiembre, exclusivamente a través del teléfono 902 217 012, de 8:00 a 19:00, de lunes a viernes. Las personas no empadronadas pueden realizar su matrícula, en el caso de quedar plazas libres, del 17 al 19 de septiembre en la Casa de Cultura, de 16:00 a 21:00.
El precio de la matrícula es gratuito para los/as empadronados/as en el caso del Club de Lectura, y cuesta 25 a las personas no empadronadas. El curso de Historia de Navarra cuesta 50 euros para personas empadronadas y 65 para no empadronadas; Danzas vascas, 70 y 95 euros, respectivamente; Fotografía, 86 y 128 euros; Inglés para viajeros, igualmente 86 y 128 euros; Pintura, 125 y 170 euros, respectivamente; y, finalmente, Manualidades, 125 euros en le caso de personas empadronadas y 170 euros en el caso de personas no empadronadas. ■

## Kaleko arte eszenikoen VII. lehiaketa

Ekainaren 20an, ostiralarekin, Kaleko Arte Eszenikoen zazpigarren lehiaketa eginen da Ribed parkean, arratsaldean. Ekimenak espetxeen errealitateaz sentsibilizatu nahi du jendea, arte adierazpena erabiliz. Oraingo honetan, Atarrabiako Kultura Zerbitzua izan du lankide, gure herrian eginen baita. Talde parte-hartzaileek beren lanak emanen dituzte; gehienez 20 minutukoak izanen dira eta gaia hauxe: "Espetxea eta askatasuna". Bi epaimahaikide izanen dira: arte eszenikoen munduko pertsona bat eta Salhaketako ordezkari bat; muntaketarik onenari 500 euroko sari bat emanen diote. 200 euroko sari bat ere izanen da, ikusleek bozketaz aukeratuko dutena.

## VII Edición del certamen de artes escénicas de calle




El viernes 20 de junio por la tarde tendrá lugar en el parque Ribed la séptima edición del Certamen de Artes Escénicas de Calle, una iniciativa que busca sensibilizar sobre la realidad de las cárceles valiéndose para ello de la expresión artística. En esta ocasión ha contado con la colaboración del Servicio de Cultura de Villava, sede de este año.
En la tarde del 20 de junio los grupos participantes pondrán en escena las obras con las que concurren, de no más de 20 minutos y de temática "La cárcel y la libertad". El jurado, formado por una persona del mundo de las artes escénicas y por una persona representante de Salhaketa, otorgarán un premio de 500 euros al mejor montaje. Habrá un premio de 200 euros que elegirá el público asistente por votación popular. ■

## Kulturak 24.644 lagun erakarri zituen 2013an

Kultura Zerbitzuak iaz antolatutako 140 kultur ekitaldiek 24.644 lagun erakarri zituzten; horietatik, ia 20.000 Kultur Etxera, eta gainerakoak, herriko beste gune batzuetara. Antzerkiak izan zituen saio gehien (44); gero, ipuin-kontalariak izan ziren (30), zinema saioak (22), erakusketak (17) eta musika (16). Guztira, 140 ekitaldi antolatu ziren.
Aisia sortzailearen ikastaroetan 210 lagunek parte hartu zuten (gehienak emakumeak: 174) eta 14 ikastaro izan ziren. Haurrentzako tailerretan (adierazpen plastikoa eta dantzak) 85 parte-hartzaile izan ziren; haien artean, 75 neskato.
Gizarte eta kultur sustapenari dagokionez, Udalak 13 hitzarmen sinatu zituen 13 arte-erakunderekin. Taldeok, guztira, 61 ateraldi egin zituzten urte osoan eta, denetara, 23.410 euro jaso zituzten. 2013an, gainera, herriko 6 entitate eta elkarterekin babesgoak sinatu ziren, 24.624 eurotan sinatu ere.

## La cultura atrajo en 2013 a 24.644 asistentes

Los 140 eventos culturales que programó el año pasado el Servicio de Cultura consiguieron movilizar a 24.644 asistentes, casi 20.000 en la Casa de Cultura y el resto en otros espacios de la localidad. Por disciplinas, el teatro (44) es la más programada, seguida por los cuentacuentos (30), por el cine (22), las exposiciones (17) y la música (16). En total, se programaron 140 eventos.
En los cursos de ocio creativo participaron 210 personas en 14 cursos programados, 174 de ellas mujeres. En los talleres infantiles (expresión plástica y danzas), hubo 85 participantes, 75 de ellos niñas.
En cuanto a la promoción sociocultural, el Ayuntamiento firmó convenios con 13 entidades artísticas, que realizaron un total de 61 salidas a lo largo del año y recibieron un total de 23.410 euros. En 2013, además, se suscribieron patrocinios con 6 entidades y asociaciones de la localidad, por un total de 24.624 euros. ■

**Kultur Etxeko ekitaldi kopurua 2013an / Número de eventos en la Casa de Cultura en 2013**




**Kultur Etxeko ikusle kopurua 2013an / Espectadores en la Casa de Cultura en 2013**







## Liburutegiko nobedadeak / Novedades Biblioteca

**HELDUAK / ADULTOS: ROIZ, Inma. *Manuela*. Donostia: TTartalo 2013. 581 p. URIBE, Kirmen. *Mussche.* Donostina Susa, 2013. ANGULO, Eduardo. *Monstruos.* Madrid: 451 editores, 2013. 247 p.**

**HAURRAK-GAZTEAK / INFANTIL-JUVENIL: MASANNEK, Joachin. *El gigante que susurra*. Barcelona: Destino, 2014. 208 p. A partir de 10 años. ISERN, Susanna. *Hartza eta tximeleta sarea.* Tafalla: Txalaparta, 2013. 29 p. 7 urtetik. BLUE JAMES. *No sonrias que me enamoro*. Barcelona: Planeta, 2014. 479 p. A partir de 12 años**

**Ordutegia:** ekainaren 15etik irailaren 14ra, liburutegia zabalik egonen da astelehenetik ostiralera, 8:30etik 14:30era. Biblio-igerilekua, abuztuaren 4tik 29ra. // **Horario**: del 15 de junio al 14 de septiembre el horario de la biblioteca será de lunes a viernes de 8:30 a 14:30. Bibliopiscina del 4 al 29 de agosto.

## ■ Aste berezia "Gazte Bizi" ekimena bukatzeko

"Gazte Bizi" ekimenak urte osoan izan duen harrera ona ikusita, Gaztelekuk aste berezia antolatu du ekainaren bukaerarako. Gogoratuko dugu ekimena 12 eta 14 urte arteko neska-mutikoentzat dela. Jarduerak ekainaren 23tik 27ra bitarte eginen dira goizez, eskolako oporraldiak hasten direnean, 11:00etatik 13:00etara. Izena ekainaren 9tik 20ra eman behar da, eta prezioa 5 euro izanen da.

## El programa "Gazte Bizi" finaliza con una semana especial

Debido a la buena acogida que ha tenido durante todo el año "Gazte Bizi", el programa de ocio dirigido a jóvenes de entre 12 y 14 años, el Gazteleku ha organizado una semana especial a finales de junio. Las actividades se desarrollarán las mañanas del 23 al 27 de junio, coincidiendo con el inicio de las vacaciones escolares, en horario de 11:00 a 13:00. Las inscripciones se realizarán del 9 al 20 de junio y el precio será de 5 euros. ■

## ■ Jai bus zerbitzua udarako

Gazteriaren Kontseiluarekin elkarlanean, Udalak berriz ere eskainiko du Jai Bus zerbitzua uda partean; zehazki, uztailaren 26an, eta abuztuaren 2an eta 9an. Ekainaren lehen hamabostaldian, Kalez kale ekimeneko boluntarioak eta Gazteriaren Kontseilua etxabez etxabe ibiliko dira herrian, gazteek bozka bidez aukeratu dezaten zer herritara joan festa egitera; Jai busa programatua dagoen egunetan, jakina. Emaitzak udalaren webean jarriko dira ikusgai (www.villava.es), bai eta Kalez kale-ren eta Gaztelekuren Facebookean ere. Autobusa boto gehien eskuratzen dituzten herrietara joanen da.

## Servicio de Jai bus para el verano

El Ayuntamiento, en colaboración con el Consejo de la Juventud, volverá a ofertar este verano el servicio "Jai bus" los días 26 de julio, 2 y 9 de agosto. Durante la primera quincena del mes de junio, el grupo de voluntarios Kalez kale y el Consejo de la juventud pasarán por las bajeras para que los/as jóvenes voten los pueblos a los que quieren ir de fiesta durante las fechas en las que está programado el Jai bus. Los resultados se colgarán en la página web municipal (www.villava.es) y en el Facebook de Kalez kale y del Gazteleku. Las opciones más votadas serán las que se oferten finalmente para el Jai bus 2014. ■

## ■ Sexualitateari buruzko film laburra "Gozamenez. Con mucho gusto" lehiaketarako

"Gazte Bizi" ekimeneko hainbat gaztek parte hartu dute "Gozamenez. Con mucho gusto" webak sexualitateari buruz antolatutako film laburren lehiaketan. Lan hori beste hamabi bideorekin ari da lehian 12 eta 17 urte arteko kategorian, eta izenburu hau dauka: "Tu sexo me suena". Sexualitateari buruzko lehiaketa batean parte hartuko duen mutil batek sexuaz dakienari buruzko lana da. Mutilaren erantzunek oinarri dituzte "Gazte Bizi" programan bizi izandako egoerak edo denboran zehar jasotako informazioa.

"Tu sexo me suena" bideoa ikusi nahi baduzu, sakatu esteka hau: http://www.youtube.com/watch?v=R5plH8QHG1o.

## Corto sobre sexualidad para el concurso "Gozamenez. Con mucho gusto"

Varios chicos y chicas del programa "Gazte Bizi" participan en el concurso de cortos sobre sexualidad que ha organizado la página web "Gozamenez. Con mucho gusto". El vídeo presentado, que compite junto con otros doce cortos en la categoría de jóvenes de entre 12 y 17 años, se titula "Tu sexo me suena" y muestra los conocimientos sexuales de un chico que va a participar a un concurso que gira en torno a la sexualidad. Sus respuestas se basan en situaciones vividas durante el programa "Gazte Bizi" o en información recopilada a lo largo del tiempo. Si quieres descubrir el corto "Tu sexo me suena", entra en el enlace http://www.youtube.com/watch?v=R5plH8QHG1o. ■



■ **GIRO ONA, I. SKATE TXAPELKETAN.** Atarrabian egin zen joan den maiatzaren 10ean, Uharte, Burlata, Aranguren Ibarra eta Atarrabiako Udalek antolatuta. Hiru orduz, izan ere, parte-hartzaileek taula gainean dituzten trebeziak erakutsi zituzten, eta ikusleek ederki gozatu zituzten begi aurrean ikusitako saioak eta piruetak. **BUEN AMBIENTE EN EL I CAMPEONATO DE SKATE.** Villava fue la encargada de inaugurar el pasado 10 de mayo el I Campeonato de Skate organizado por los Ayuntamientos de Huarte, Burlada, Valle de Aranguren y Villava. Durante tres horas, los distintos participantes mostraron sus habilidades con la tabla y el público pudo disfrutar de algunas de las figuras y piruetas más llamativas del torneo. ■

## ■ Parte-hartze handia udako kanpaldian

Herriko 12 eta 14 urte arteko 22 gazte arituko dira uztailaren 28tik 31ra bitarte Lerateko Aritzaleku kanpinean eginen den udako kanpaldian, Allozko urtegiaren ondoan. Han dauden bitartean, gaztetxoek denetarik eginen dute bai ur barruan (windsurf, piraguismoa eta paddle sup), bai uretatik kanpo, hala nola Urbasa mendian barna ibiltzea, espeleologia eta orientazio jokoak. Horrez gain, Urederraren iturburua ikustera joanen dira. Kanpaldi hori batera antolatzen dute Uharte, Burlata, Aranguren Ibarra eta Atarrabiako Udalek.

## Éxito de participación en el campamento de verano

Un total de 22 jóvenes de entre 12 y 14 años de la localidad participarán en el campamento de verano que tendrá lugar entre el 28 y el 31 de julio en el camping Haritzaleku (Lerate), en el pantano de Alloz. Durante su estancia, los asistentes podrán disfrutar de un intenso programa en el que no faltarán actividades acuáticas (windsurf, piragüismo, paddle sup) y excursiones a la sierra de Urbasa para hacer espeleología y juegos de orientación. Además, se visitará el nacedero de Urederra. Esta actividad se enmarca dentro de las actividades mancomunadas que organizan los Ayuntamientos de Huarte, Burlada, Valle de Aranguren y Villava. ■

## ■ Deialdia, gazte proiektuak eta ekimenak diruz laguntzeko

Gazteria Batzordeak deialdi hori onetsi du 2014ko gazte proiektuak eta ekimenak diruz laguntzeko. Elkarteetan dabiltzan gazteek eta ez dabiltzanek herriko neska-mutikoentzat antolatzen dituzten proiektu eta ekimenak aurkeztu beharko dituzte ekainaren 20ra arte. Argibideak Gaztelekun (948 35 59 70), juventud@villava.es, eta juventud@villava.es webean.

## Convocatoria de subvenciones para proyectos e iniciativas juveniles juveniles

La Comisión de Juventud ha aprobado la convocatoria de subvenciones para proyectos e iniciativas juveniles 2014. Los y las jóvenes asociados/as y no asociados/as podrán presentar sus proyectos y programas de juventud dirigidos a chavales de la localidad hasta el próximo 20 de junio. Más información en el Gazteleku (948 35 59 70), en www.villava.es y en juventud@villava.es. ■

atarrabia
ASESORÍA FISCAL Y CONTABLE S.L.
Asesoramiento y gestión para Pymes, autónomos y particulares
C/ Agustín García Bordel, 22 • Entreplanta A
31610 **Villava** (Navarra)
**Tel.:** 948 33 07 01 • **Fax:** 948 36 10 16
**E-mail.:** administracion@asesoria-atarrabia.com
www.asesoria-atarrabia.com

C/ Ezcaba, 5
31610 Villava
MI LLÁN
OPTICA
Tfno-Fax:
948 14 36 40


## ■ Kalez kale-k "Erronda azkarra"-ko bideoa aurkeztu du

Joan den martxoan, "Kalez Kale-Callejeando" ekimenak "Erronda azkarra" egin zuen herriko 20 etxabetan, Kalez kale-k etxabeetan egindako lanari buruz gazteek zer iritzi duten jakiteko. Etxabeetako gazteek esandako eta egindako ekarpenak bideoz grabatu ziren eta, ondotik, DVD bat egin zen etxabe parte-hartzaileen artean banatzeko. Orain, "Kalez Kale- Callejeando" ekimenak bideoaren edukia jendaurrean jarri du ikusgai, eta ikusi nahi duten guztiek esteka honen bidez ikusiko dute:/www.youtube.com/watch?v=zruYUx6liAU. Kalez kale-k etxabeei eskerrak eman dizkie parte hartzeagatik.

## Kalez kale presenta el vídeo de la "Ronda relámpago"

El pasado mes de marzo "Kalez Kale-Callejeando" llevó a cabo una "Ronda relámpago" en 20 bajeras para conocer las opiniones de los/as jóvenes sobre el trabajo realizado por Kalez kale en las bajeras. Las respuestas y las aportaciones de los jóvenes de las bajeras fueron grabadas en vídeo y, posteriormente, se elaboró un DVD que fue repartido entre las bajeras participantes. Ahora "Kalez Kale- Callejeando" ha decidido hacer público su contenido y todo aquel que quiera verlo puede hacerlo a través del enlace https://www.youtube.com/watch?v=zruYUx6liAU. Desde "Kalez Kale-Callejeando" agradecen a todas las bajeras su participación. ■



## ■ Aurtengo abuztuan, berriz ere "Udabizi"

Gaztelekuk antolaturik, aurtengo udan ere "Udabizi" eginen da, hots, 12 eta 14 urte arteko gazteendako aisia programa hezigarria. Jarduerak asteartetik ostegunera eginen dira, 11:00etatik 13:00etara, eta askotariko gauzak izanen dira: era bateko zein besteko tailerrak (birziklapena, sukaldaritza, multimedia…), jolasak, txangoak eta irteerak. Ekainaren 16tik 30era eman beharko da izena eta iazko prezio berberari eutsi zaio: 5 euro, alegia.

## "Udabizi" en agosto

El Gazteleku ha organizado una nueva edición de "Udabizi", el programa educativo de ocio dirigido a jóvenes de 12 a 14 años. Las actividades, que se desarrollarán de martes a jueves de 11:00 a 13:00, abarcarán desde talleres variados (reciclaje, cocina, multimedia…) hasta juegos y excursiones. Las inscripciones serán del 16 al 30 de junio y se mantendrá el mismo precio que el año pasado, 5 euros. ■

## ■ Abuztuko irteerak

Atarrabiako Udalak, Burlata, Uharte eta Aranguren Ibarreko Udalekin elkarlanean, bi irteera antolatu ditu abuzturako. Lehena "izar uxoa" izanen da eta, izenak berak dioen bezalaxe, abuztuaren 11n eginen da, eta gaia, jakina, astrologia izanen da. Gauez joanen dira bizikletaz Eguesibarko Sagasetara, handik izarrak eta zeruko argizagiak ikusteko. Parte-hartzaileak 12 eta 16 urte artekoak izanen dira; gau osoa aire zabalean eman eta hantxe bertan lo eginen dute. Txangoak 3 euro balioko du eta izena emateko epea uztailaren 16tik abuztuaren 5era bitarte izanen da. Argibideak Gaztelekun (948 35 59 70) edo juventud@villava.es helbidean.

**Bisita Madrilgo Aquopolisera**

Bigarren txangoa abuztuaren 21ean eginen da Villanueva de la Cañadako Aquopolisera joateko (Madril). Tokiak mugatuak dira. Erroldatuek 20 euro ordainduko dute; eta erroldaturik ez daudenek, berriz, 40 euro. Izena emateko epea uztailaren 16tik abuztuaren 10era izanen da.

## Salidas en agosto

El Ayuntamiento de Villava, en colaboración con los Ayuntamientos de Burlada, Huarte y valle de Aranguren, ha organizado dos salidas durante el mes de agosto. La primera de ellas, "Lluvia de estrellas", será el 11 de agosto y, como su nombre indica, girará en torno a la astrología. Se trata de una salida nocturna en bicicleta a Sagaseta (valle de Egüés) para observar las estrellas y los astros. Los participantes, de entre 12 y 16 años, pasarán toda la noche al raso y dormirán allí mismo. La excursión costará 3 euros y el plazo de inscripción será del 16 de julio al 5 de agosto. Más información en el Gazteleku (948 35 59 70) o en juventud@villava.es.

**Visita al Aquopolis de Madrid**

La segunda excursión prevista será el 21 de agosto y tendrá como destino el Aquopolis de Villanueva de la Cañada (Madrid). Las plazas son limitadas. El precio para las personas empadronadas será de 20 euros, mientras que las personas no empadronadas deberán abonar 40 euros. El plazo de inscripción será del 16 de julio al 10 de agosto. ■

## ■ I. Antzerki Gazte Topaketa

Antzerkia izanen da ekainaren 13, 14 eta 15eko ardatz nagusia I. Antzerki Gazte Topaketaren eskutik, 12tik 20ra urte bitarteko gazteentzat. Hilaren 13an, ostiralarekin, eta 14an, larunbatarekin, jarduerak Kultur Etxean eginen dira. Igandean, berriz, antzerkiaren jaia Mutiloara eramanen da.




Kaleko erakustaldi eta ikuskizunak doan izanen dira eta jende guztiarendako zabalik. Antzezlanak ikusteko, berriz, gonbidapen bat jaso beharko da Atarrabiako eta Mutiloako Kultur Etxeetan saioa hasi baino ordu erdi lehenago.

### EGITARAUA

**HILAK 13, OSTIRALA. ATARRABIA**
**18:30:** Harrera
**19:30:** Kalejira
**20:30:** Antzerki erakustaldia: Antzerki Gaztearen Tailerreko taldea, gaztelaniaz, Uharte, Burlata eta Atarrabia
**22:00:** Afaria
**23:30:** Jolasak

**HILAK 14, LARUNBATA. ATARRABIA**
**09:00:** Gosaria
**10:00 eta 12:00:** Tailerrak: Ahotsa eta Antzerki Dantza (euskaraz eta gaztelaniaz)
**14:00:** Bazkaria
**16:00:** Tailerrak: Artearen Komedia eta Jantziak (gaztelaniaz)
**19:00:** Antzerki erakustaldia: Arangurengo Haur Antzerki Taldea (gaztelaniaz)
**21:00:** Antzerki erakustaldia: Arangurengo Gazte Antzerki Taldea (gaztelaniaz)
**22:30:** Afaria
**23:30:** Inprobisazio saioa

**HILAK 15, IGANDEA. MUTILOA**
**09:00:** Gosaria
**10:00:** Lana taldeka
**13:00:** Bazkaria
**15:00:** Lan erakustaldia taldeka
**18:00:** Antzerki erakustaldia: Uharte, Burlata eta Atarrabiako Gazte Antzerki Tailerra euskaraz.
**20:00:** Kaleko antzerki ikuskizuna. Trapu zaharra antzerki talde profesionala: "Vive soñando"

## Disfruta del I Encuentro de Teatro Joven

El teatro será el gran protagonista del fin de semana del 13, 14 y 15 de junio de la mano del I Encuentro de Teatro Joven dirigido a jóvenes de entre 12 y 20 años. El viernes 13 y el sábado 14 las actividades programadas se desarrollarán en la Casa de Cultura, mientras que el domingo la fiesta del teatro se trasladará a Mutilva.

Las entradas para las muestras y los espectáculos de calle serán gratuitos y abiertos a todo el público. Para asistir a las muestras, será necesario recoger una invitación en las taquillas de las Casas de Cultura de Villava y Mutilva media hora antes del comienzo de la sesión. ■

### PROGRAMA

**VIERNES 13 VILLAVA**
**18:30**: Recepción
**19:30:** Kalejira
**20:30:** Muestra Teatro: Grupo Taller de Teatro Juvenil en castellano Huarte, Burlada y Villava
**22:00:** Cena
**23:30:** Juegos

**SÁBADO 14 VILLAVA**
**09:00:** Desayuno
**10:00 y 12:00:** Talleres: Voz y Danza Teatro (euskera y castellano)
**14:00:** Comida
**16:00:** Talleres: Comedia del Arte y Vestuario (castellano)
**19:00:** Muestra de Teatro: Grupo Teatro Infantil de Aranguren (castellano)
**21:00:** Muestra de Teatro: Grupo Teatro juvenil de Aranguren (castellano)
**22:30:** Cena
**23:30:** Match de Improvisación

**DOMINGO 15 MUTILVA**
**09:00:** Desayuno
**10:00:** Trabajo por grupos
**13:00:** Comida
**15:00:** Muestra Trabajo por grupos
**18:00:** Muestra de Teatro: Grupo Taller de Teatro Juvenil en euskera de Huarte, Burlada y Villava
**20:00:** Espectáculo de teatro de calle. Grupo de teatro profesional Trapu Zaharra."Vive soñando"



## ■ Udaberriko tailerrak, arrakastatsu

Arrakastarik handienetakoa izan duen tailerra elikagaiak manipulatzeko ikastaroa izan da, herriko 18 ikasle eta langabe bildu baitira. Jende askok izena eman zuenez, antolatzaileek toki kopurua handitu behar izan zuten. Azkenean, bi talde egin ziren; bata, Atarrabia, Uharte, Burlata eta Aranguren Ibarreko Udalek finantzatua, eta bestea, Gazteekin egiten diren Jardueretarako Nafarroako Eskolak (GJNE) ordaindua. Urtxintxak, bere aldetik, "Jolasak eta tresnak, hezkuntza denbora libreko balioetan lantzeko" ikastaroa antolatu zuen, eta harrera ona ere izan zuen. Herriko zazpi gazte aritu dira tailerrean.

## Buena acogida de los talleres de primavera

Uno de los talleres con más éxito ha sido el curso de manipulador de alimentos, que ha logrado reunir a 18 estudiantes y parados/as de la localidad. Tras la alta demanda registrada, los organizadores tuvieron que ampliar las plazas. Finalmente hubo dos grupos, uno financiado por los Ayuntamientos de Villava, Huarte, Burlada y Valle de Aranguren y otro por la Escuela Navarra de Actividades de Jóvenes (ENAJ).
El taller "Juegos y herramientas para trabajar la educación en valores en el tiempo libre" organizado por Urtxintxa también ha tenido una buena acogida. Un total de 7 jóvenes de Villava han participado en el taller. ■





## ■ Ez zuten irabazterik izan

Beti Onak-eko neskek ez zuten zorterik izan apirilaren azken asteburuan Oviedon jokatu zuten azken partidan, Ohorezko Mailara igotzen saiatzeko. Hiru partidak galdu zituzten (Vicar Goya, BM Granollers eta Oviedo BM taldeen aurka), norgehiagokak oso lehiatuak izan baziren ere. Ehun bat senitarteko eta jarraitzaile joan ziren Atarrabiatik eta beste herri batzuetatik, taldea animatzeko. Saria merezi zuten, denboraldi bikaina egin ondoren, baina… beste batean izan beharko du!

Klubeko beste talde batzuei dagokienez, gizonezkoen eskubaloi talde seniorrak Lehen Nazional mailari eustea lortu du. Era berean, beste urte batez futboleko 3. mailan jarraituko du, eta, eskupilotan, finkatzen ari dira jubenil eta seniorretako kategoria guztiak.

## No pudo ser

Las chicas del Beti Onak no tuvieron suerte en su desplazamiento a Oviedo, donde se jugó el último fin de semana de abril su ascenso a División de Honor. Perdió sus tres partidos (contra Vicar Goya, BM Granollers y Oviedo BM), aunque los encuentros fueron muy disputados. Un centenar de familiares y seguidores/as se desplazaron desde Villava y otras localidades a animar al equipo. Se merecían el premio tras su brillante temporada, pero... ¡otra vez será!

En cuanto a otros equipos del club, el senior masculino de balonmano ha conseguido mantenerse en Primera Nacional. También seguirá un año más en 3ª división el de fútbol, y, en pelota mano, se van consolidando las diferentes categorías de juveniles y senior. ■

## ■ Miguel Indurain proba ekainera aurreratu da

Miguel Indurain txirrindularitza proba abuztuan egin izan da, baina aurten ekainaren 29ra aurreratu da, beste urte batez ere Atarrabiako Udalak lagundurik.

Probak 103 km-ko ibilbide laburra izanen du; hiru mendate izanen ditu eta 1.500 metroko desnibel metatua. Luzeak 183 km izanen ditu, eta sei mendate igo beharko dituzte: Picea, Mezkiritz, Erro, Egozkue, Belate eta Artesiaga. Bigarren ibilbidea gogorra eta zorrotza da, eta desnibel metatua 3.000 metro izanen da. Argibideak: www laindurain.com

## La Miguel Indurain se adelanta a junio

La prueba ciclista Miguel Indurain, que venía celebrándose en agosto, se adelanta este año al 29 de junio, un año más con la colaboración del Ayuntamiento de Villava.

La prueba contará con un recorrido corto de 103 km, con 3 puertos y un desnivel acumulado de 1.500 m, y uno largo de 183 km en el que los ciclistas tendrán que superar 6 puertos: Picea, Mezquiriz, Erro, Egozkue, Belate y Artesiaga. En este segundo trazado, duro y exigente, el desnivel acumulado es de 3.000 m. Más información en www laindurain.com ■

## ■ Hasia da herriarteko pilota txapelketa

Atarrabia aurten berriz ere ari da herriarteko pilota txapelketaren bigarren mailan parte hartzen. Ligaxka moduan antolatua dago, itzuli bakarrera, eta partida bakarrera kategoria bakoitzeko (kimuak, infantilak, jubenilak eta seniorrak). Maiatzaren 11n Lekunberriren aurka jokatu zuten, han; 18an, Mendillorri-Iruña taldearen aurka etxean, eta hil bereko 25ean, Esteribarren aurka, bisitari gisa. Ekainean, Ultzamaren aurka aritu ziren etxean; 8an Arbizuren aurkako partidak jokatuko dituzte haien etxean; 15ean, berriz ere Atarrabian Zizurren aurka (10:00etatik 14:00etara Atarrabia Pilotalekuan) eta, azkenik, 22an Barañainera joanen dira. Bi talde onenek indarrak finalean neurtuko dituzte ekainaren 29an, Labrit pilotalekuan.

## En marcha el Interpueblos de pelota

Villava participa también este año en la segunda categoría del campeonato Interpueblos de pelota. El torneo está diseñado en forma de liguilla a una vuelta y a un partido entre los correspondientes de cada categoría (alevín, infantil, juvenil, senior). El 11 de mayo se enfrentaron a Lekunberri como visitantes, el 18 como locales a Mendillorri-Iruña, y el 25 del mismo mes a Esteribar como visitantes. Ya en junio, el día 1 compitieron contra Ulzama en casa, el día 8 se enfrentan a Arbizu en su casa, el 15 de nuevo en Villava contra Cizur-Zizur (de 10:00 a 14:00 en el Frontón Atarrabia) y, finalmente, el 22 se desplazarán a Barañain. La final enfrentará a los dos mejores equipos y se jugará el día 29 de junio en el Frontón Labrit. ■

## ■ Txirrindularitza denboraldia, abian

Maiatzaz geroztik ari dira Nafarroako Kirol Jokoetan, txirrindularitzari dagokionez, eta irailera arte iraunen dute. Club Ciclista Villavés elkartearen hurrengo hitzordua ekainaren 28a izanen da. Egun horretan, batetik, BTTko txirrindulariak Zangozan arituko dira lehian; kadeteak Undion, eta eskolak, azkenik, Tutera Hiria txapelketan. Uztailean, bestalde, kadeteek Tuteran jokatuko dute proba hilaren 13an, eta eskolek Iturmendin 19an. Abuztuan, kadeteek proba izanen dute Tafallan hilaren 14an, eta eskolek, 24an Lizarran. Karreren jarraipena egiteko: www. fnciclismo.es

## En marcha la temporada de ciclismo

Desde mayo se están disputando los Juegos Deportivos de Navarra de ciclismo, que durarán hasta el mes de septiembre. Las próximas citas para el Club Ciclista Villavés son el día 28 de junio. Ese día competirán, por un lado, los ciclistas de BTT en Sangüesa; los cadetes en Undiano y las escuelas en el trofeo Ciudad de Tudela.

Ya en julio, los cadetes competirán el día 13 en Tudela y el 19 en Iturmendi las escuelas. En agosto, los cadetes compiten el día 14 en Tafalla y las escuelas el 24 en Estella.

Seguimiento de las carreras en www. fnciclismo.es ■

## ■ Aterpetxeak ekain eta abuzturako antolatu dituen jarduerak

**EKAINA (18:00-21:00)**

**Hilak 19 osteguna, 20 ostirala, 26 osteguna eta 27 ostirala**

Zurezko erraldoiak jolasa: haur eta helduek aukera izanen dute Europako jolas klasikoen bilduma baten zati batekin aritzeko; antzinako piezak erreproduzitu eta moldatu dira.

**ABUZTUA (19:30-21:30)**

**Hilak 1, ostirala:** kantautorea

**8, ostirala:** dokumental emanaldia

**15, ostirala:** kantautorea

**22, ostirala:** kantautorea

**29, ostirala:** 'Los malos sueños de René Petit' (2014) dokumentalaren aurkezpena. Esa handitzeak kaltetutakoen taldea, Artiedako "Río Aragón" elkartea eta Zangozako "Yesa más no-Lanak gelditu" ekimena, Eguzki Bideoak taldearekin batera.

## Actividades en el Albergue para junio y agosto

**JUNIO (18:00-21:00)**

**Jueves 19, viernes 20, jueves 26 y viernes 27**

Juegos gigantes de madera: se podrá experimentar, niños/as y mayores, con parte de una colección de juegos clásicos europeos reproducidos y adaptados a partir de piezas antiguas.

**AGOSTO (19:30-21:30)**

**Viernes 1:** cantautor

**Viernes 8:** Proyección de un documental

**Viernes 15:** cantautor

**Viernes 22:** cantautor

**Viernes 29:** Presentación del documental 'Los malos sueños de René Petit' (2014). Colectivo Personas afectadas por el recrecimiento de Yesa, la asociación "Río Aragón" de Artieda y la iniciativa "Yesa más no-Lanak gelditu" de Sangüesa junto con Eguzki Bideoak. ■








Bar - Restaurante
Errialde
Menus, platos combinados, bocadillos.
Ambiente motero con el Moto Club Atarrabia
RICARDO BELL, 8. VILLAVA-ATARRABIA
TEL. 948 149 005



## Etxe Beltzaren goxua txapelketa, bukatua

Etxe Beltza elkarteak antolaturik, bibitako txapelketaren XIV. edizioa jokatu da, goxua pilotarekin jokatu ere, eta aurten 17 bikote aritu dira, bi kategoriatan banatuta. Finalak maiatzaren 19ean izan ziren goizez, elkarteko bazkidearen egunarekin bat. Elkarteak, gainera, bertaratutako guztiei otamena zerbitzatu zien.
Harmailetan giro handia izan zen, partida gehienak lehiatuak izan ziren, eta denetarik ikusi zen: hau da, tanto ederrak eta arras jokatuak, eta nerbioen ondorioz egindako hutsak, finaletan ohi denez. Ikusleak poz-pozik partidak ikusten eta pilotarien ahalegina gogotik eskertu zuten.
Lehen mailan, Paternain eta Beroiz izan ziren txapeldunak, Willy eta David mendean hartu ondoren. Hirugarrenak eta laugarrenak Zenotz-Zezilio eta Gelbentzu anaiak izan ziren.
Bigarren mailan, irabazleak Txarly eta Iñaki izan ziren, Seminario eta Barberenari irabazi ondoren. Gallues eta Karrika hirugarrenak izan ziren, eta laugarrenak, berriz, Echeverría eta Olmedo.

## Finalizó el campeonato goxua de Etxe Beltza

En la XIV edición del campeonato de pelota goxua por parejas organizado por Etxe Beltza participaron 17 parejas, divididas en dos categorías. Las finales se celebraron el 10 de mayo por la mañana, coincidiendo con el día del socio de la sociedad, que ofreció un aperitivo al público asistente.
El ambiente en la grada fue muy cálido. Los partidos fueron, en general, disputados, alternando tantos de gran intensidad y belleza con errores fruto de la tensión propia de las finales. La grada disfrutó, y agradeció el esfuerzo delos pelotaris.
En primera, la txapela fue para Paternain-Beroiz, que vencieron a Willy-David. Los terceros y cuartos clasificados fueron Zenotz-Zezilio y Gelbentzu anaiak.
En segunda categoría, la pareja vencedora fue Txarly-Iñaki, que se impuso a Seminario-Barberena. Los terceros y cuartos clasificados fueron Gallues-Karrika y Echeverría-Olmedo. ■

## Hiru Herri klubeko mendi atala, abian

Hiru Herrik mendi atala abiarazi du (Hiru-Herri Mendi Taldea), gero eta bazkide gehiago Mendi Lasterketetan aritzen baitira, eta haien beharrari erantzuteko, holako kirol mota klubean bertan txertatuta.
Lehen ekitaldietako bat maiatzaren 17an egin zuten; hau da, besteak beste, Atarrabiako Udalak antolaturik, "I Hirumenditrail" mendi lasterketa antolatu zuten, Udaletxe plazatik abiatuta eta toki berera iristeko.
Ion Solak eta Miriam Gazpiok proba luzea irabazi zuten, eta Gabriel Garinek eta Eider Delasek, laburra.

## Se estrena la sección de montaña en Hiru Herri

El Hiru Herri ha puesto en marcha la sección de montaña (Hiru-Herri Mendi Taldea) con el objetivo de responder a la necesidad que tenían los socios que participaban en Carreras de Montaña (cada día más numerosas) de integrar esta disciplina en su club.
Una de sus primeras actuaciones fue organizar el 17 de mayo, con la colaboración, entre otros, del ayuntamiento de Villava, la "I Hirumenditrail, una carrera de montaña con salida y llegada en la plaza del Ayuntamiento. Ion Sola y Miriam Gazpio ganaron la prueba larga y Gabriel Garin y Eider Delas la corta. ■

## XXV Hiru-Herri lasterketa herrikoia: emaitzak

Joan den apirilaren 13an jokatuta, 1.000 lasterkarik baino gehiagok parte hartu zuten Hiru Herri lasterketaren 25. edizioan, irteera eta helmuga Uharten zeudela. 10 kilometroko ibilbidea izan zen Uharten, Atarrabian eta Burlatan barrena. Irabazleak Ana Casares eta Mostapha izan ziren, emakumezkoetan eta gizonezkoetan, hurrenez hurren.

## Resultado XXV Carrera Popular Hiru-Herri

El pasado 13 de abril más de 1.000 corredores y corredoras participaron en la 25 edición de la carrera Hiru Herri, que, con salida y meta en Huarte, discurrió por un circuito de 10 kilómetros que atravesó esta localidad, Villava y Burlada. Los ganadores fueron Ana Casares y Mostapha, en las categorías femenina y masculina, respectivamente. ■

## Erretiratuen Elkarteko jarduerak

Elkarteak ateraldi bat antolatu du Viana-Logroñora, ekainaren 19an. Gero, uztailean eta abuztuan, urtero bezala, egunbeteko ateraldiak eginen dituzte inguruko hondartzetara. Eta irailean, berriz, Loireko gazteluak eta Paris ikustera joanen dira. Argibideak eskuratzeko, interesatuek astearte eta ostegunetan jo behar dute Erretiratuen Elkartera, 10:30etik 12:00etara.
Bestalde, ekainaren 6ra bitarte ikusgai egonen da eskulan, pintura eta patchword tailerretan egindako lanen sorta bat.

## Actividades del Club de Jubilados

La próxima salida organizada por el club es a Viana-Logroño el 19 de junio. En julio y agosto habrá, como todos los años, salidas de un día a las playas más cercanas. Ya en septiembre, se realizará un viaje a Castillos del Lira y París. Para obtener información más detallada,los interesados deben acercarse los martes y jueves de 10:30 a 12:00 al Club de Jubilados.
Por otra parte, hasta el 6 de junio se puede visitar la muestra de trabajos realizados en los talleres de manualidades, pintura y patchword. ■

## Hiru-herri Klubaren campusa

Hiru Herri Klubak atletismo campus bat antolatu du udarako, 6 eta 14 urte arteko haurrentzat. Hainbat txandatan eginen da, ekainaren 23tik abuztuaren 29ra. Argibideak: http://hiru-herri.jimdo.com/escuela/campus-atletismo/

## Campus de Hiru-herri

El Club Hiru Herri ha organizado para el verano un campus de atletismo para niños-as de 6 a 14 años. Se desarrollará en varias tantas desde el 23 de junio al 29 de agosto. Información en http://hiru-herri.jimdo.com/escuela/campus-atletismo/ ■

## Doako aikidoa udan

Doako klaseak abuztuaren 4tik irailaren 10era bitarte emanen dira defentsa-arte horretan ikasi nahi dutenentzat, betiere 14 urtetik gorakoentzat, astelehen eta asteazkenetan, 20:00etatik 21:30era, Martiket igerilekuetan. Argibideak: cdaikidomartiket@hotmail.com

## Aikido gratis en verano

Desde el 4 de agosto hasta el 10 de septiembre los interesados/as en aprender este arte marcial (de más de 14 años) tienen la posibilidad de recibir clases gratuitas en el tatami de las piscinas municipales de Martiket. Las clases tendrán lugar los lunes y miércoles de 20:00 a 21:30. Más información en cdaikidomartiket@hotmail.com ■

## Alaitz eta Altsasuko institutuetako kontzertua

Barañaingo Alaitz institutuko eta Altsasuko institutuko 250 ikaslek eta irakaslek kontzertu bat eskaini zieten joan den maiatzean Atargi ikastetxe publikoko ikasleei. Esan daiteke saioa ikasturte akaberako jaia bezalakoa izan zela; bertaratuek harrera ona egin zieten eta errepertorio animatua entzuteko parada izan zuten, bai gaur egungo kantuak bai dantza bat edo beste. Atargi ikastetxeak eskerrak eman dizkie bi institutu gonbidatuei eta, arrakasta ikusita, espero dute heldu den urtean segida izatea.

## Concierto de los institutos Alaitz y Altsasu en Atargi

Un total de 250 de alumnos/as y profesores/as del instituto Alaitz de Barañáin y del instituto de Altsasu ofrecieron el pasado mayo un concierto a los/as escolares del colegio público Atargi. La actuación, que se convirtió en una auténtica fiesta de despedida, tuvo una gran acogida entre los asistentes, que pudieron disfrutar de un animado repertorio a base de canciones actuales y algún que otro baile. Desde Atargi quieren agradecer a los institutos invitados esta iniciativa y, en vista del éxito cosechado, esperan que el próximo año tenga continuidad. ■

**MUSIKA**
**Ekainak 5, osteguna**
Kantua eta desgaitasuna
**Non:** Kultur Etxeko antzokia
**Ordua:** 20:00 Sarrera: 3 €

**MUSIKA**
**Ekainak 7, larunbata**
Ciudad de Astorga Excelsior abesbatza **Non:** Kultur Etxeko antzokia **Ordua:** 20:00 **Sarrera:** librea

**KARRIKA NAGUSIAREN EGUNA**
**Ekainak 7, larunbata**
**13:30:** Txupinazoa eta pregoia Pilategitik **12:30:** Herri erronda karrika Nagusian barna **14:30:** Bazkaria, bakoitzak berea. Karrika Nagusia Kultur Etxetik. Karrika Nagusiko argazki erakusketa **16:30:** Luziano showa **19:00:** Kontzertua Azkena elkartearen aldean.

**ANTZERKIA**
**Ekainak 20, ostirala**
Kaleko arte eszenikoen VII. lehiaketa **Non:** Ribed parkea
**Ordua:** arratsaldea **Sarrera:** librea

**MUSIKA**
**Irailak 6, larunbata**
Benito Lertxundi
**Non:** Induráin Anaiak kiroldegia
Ordua: 21:30 Sarrera: 18 €
Atarrabiako auzokideentzat eta aurreko salmentan, eta 20 € leihatilan. Kultur Etxea eta www.villava.es / www.atarrabia.es.

**MÚSICA**
**Jueves 5 de junio**
Canto y discapacidad
**Lugar:** teatro de la Casa de Cultura
**Hora:** 20:00 **Entrada:** 3 €

**MÚSICA**
**Sábado 7 de junio**
Coral Ciudad de Astorga Excelsior
**Lugar:** teatro de la Casa de Cultura
**Hora:** 20:00 **Entrada:** libre

**DÍA DE LA CALLE MAYOR**
**Sábado 7 de junio**
**11:30:** Txupinazo y pregón desde El Batán / **12:30:** Ronda popular por la calle Mayor / **14:30:** Comida autogestionada. Calle Mayor desde la Casa de Cultura. Exposición de fotos de la Calle Mayor / **16:30:** Luziano show / **19:00:** Concierto zona Sociedad Azkena.

**TEATRO**
**Viernes 20 de junio**
VII Edición del certamen de artes escénicas de calle **Lugar:** parque Ribed **Hora:** tarde **Entrada:** libre

**MÚSICA**
**Sábado 6 de septiembre**
Benito Lertxundi
**Lugar:** Polideportivo Hermanos Induráin **Hora:** 21:30 **Entrada:** 18 € para los vecinos de Villava y en venta anticipada y 20 € en taquilla. En la Casa de Cultura y en www.villava.es / www.atarrabia.es.

## Gau Zuria

**Ekainak 21**
**Kultur Etxea**
**20:00:** Kaleko ikuskizuna: “La diva es una tómbola”. Taldea: XXL Espectáculos. Udaletxe plaza.
**21:30:** Erraldoi konpartsaren kalejira, gaiteroak, dultzaineroak eta txistulariak. Irteera: Kultur Etxea, karrika Nagusia, Udaletxe plaza eta karrika Nagusia.
**22:30:** Juglareen kalejira. El Bardo. Kultur Etxea, karrika Nagusia.
**23:00:** ART ARRABIA erakusketaren inaugurazioa. Kultur Etxea.
**23:30:** Kontzertua. San Andrés abesbatza.
**24:00:** Betegarri pintxoa, Nafarroako Betegarri Kofradiak eskainia. Kultur Etxeko atondoa.
**00:20:** Kontzertua. Zorongo.
**00:50:** Interludio poetikoa. El Bardo.
**01:00:** Antzerkia. “Los esclavos”. Zarrapastra.
**01:15:** Interludio poetikoa. El Bardo.
**01:20:** Kontzertua. Atarrabia Abesbatza.
**01:50:** Jendeak olerkiak errezitatzea

## UDAKO KULTUR PROGRAMAZIOA

**Abuztuaren 1etik 29ra**
**Liburu baten itzalpean**
**Martiket igerilekuko liburutegia**
**Ordutegia:** 16:30-20:00

**Abuztuak 10, igandea**
**Zinema aire zabalean**
“Justin y la espada del valor”
**Ordua:** 22:00 **Non:** Bakearen parkea

**Abuztuak 14, osteguna**
**Antzerkia**
“Como una cabra”
**Taldea:** Trokolo Antzerkia
**Hizkuntza:** Euskara
**Ordua:** 20:00 **Non:** Udaletxe plaza
Jende guztiarentzat

**Abuztuak 17, igandea**
**Zinema aire zabalean**
“Las Brujas de Zugarramurdi”
**Ordua:** 22:00 **Non:** Bakearen parkea

**Abuztuak 21, osteguna**
**Teatro**
“Txarlestrup”
**Taldea:** Zirika Zirkus
**Ordua:** 20:00 **Non:** Udaletxe plaza
Jende guztiarentzat

**Abuztuak 24, igandea**
**Zinema aire zabalean**
“Vivir es fácil con los ojos cerrados”
**Ordua:** 22:00 **Non:** Bakearen parkea

**Abuztuak 28, osteguna**
**Antzerkia**
“Frorenzio Galdino”
**Taldea:** Zirkoloretsua
**Ordua:** 20:00 **Non:** Udaletxe plaza
Jende guztiarentzat

**Abuztuak 31, igandea**
**Zinema aire zabalean**
“Pagafantas”
**Hizkuntza:** euskara
**Ordua:** 22:00 **Non:** Bakearen parkea

## PROGRAMACIÓN CULTURAL VERANO

**1 al 29 de agosto**
**A la sombra de un libro**
**Biblioteca en piscinas Martiket**
**Horario:** 16:30-20:00 años

**Domingo 10 de agosto**
**Cine al aire libre**
“Justin y la espada del valor”
**Hora:** 22:00 **Lugar:** Parque de la Paz

**Jueves 14 de agosto**
**Teatro**
“Como una cabra”
**Compañía:** Trokolo Teatro
**Idioma:** Euskera
**Hora:** 20:00 **Lugar:** Plaza Consistorial
Todos los públicos

**Domingo 17 de agosto**
**Cine al aire libre**
“Las Brujas de Zugarramurdi”
**Hora:** 22:00 **Lugar:** Parque de la Paz

**Jueves 21 de agosto**
**Teatro**
“Txarlestrup”
**Compañía:** Zirika Zirkus
**Hora:** 20:00 **Lugar:** Plaza Consistorial
Todos los públicos

**Domingo 24 de agosto**
**Cine al aire libre**
“Vivir es fácil con los ojos cerrados”
**Hora:** 22:00 **Lugar:** Parque de la Paz

**Jueves 28 de agosto**
**Teatro**
“Frorenzio Galdino”
**Compañía:** Zirkoloretsua
**Hora:** 20:00 **Lugar:** Plaza Consistorial
Todos los públicos

**Domingo 31 de agosto**
**Cine al aire libre**
“Pagafantas”
**Idioma:** euskera
**Hora:** 22:00 **Lugar:** Parque de la Paz






■ **ANTZINAKO MERKATUA.** Joan den maiatzaren 4an egin zen, igandearekin, herriko karrika Nagusian. Azken asteburuan, berriz, eta ekainaren 1era arte, toki berean Erdi Aroko Merkatua egin zen. **MERCADO DE ANTAÑO.** El domingo 4 de mayo, la calle Mayor se vio "tomada" por el Mercado de Antaño y sus visitantes. El último fin de semana y hasta el 1 de junio se celebró el Mercado Medieval en el mismo escenario. ■

## La Noche Blanca

**21 de junio**
**Casa de Cultura**
**20:00:** Espectáculo de calle “La diva es una tómbola”. Compañía XXL Espectáculos. Plaza Consistorial.
**21:30:** Pasacalles con la Comparsa de Gigantes, gaiteros, dulzaineros y txistularis. Salida desde la Casa de Cultura, calle Mayor, Plaza Consistorial y calle Mayor.
**22:30:** Pasacalles juglaresco. El Bardo. Casa de Cultura, calle Mayor.
**23:00:** Inauguración de la exposición ART ARRABIA. Casa de Cultura.
**23:30:** Concierto. Coral San Andrés.
**24:00:** Pintxo de relleno ofrecido por la Cofradía del Relleno de Navarra. Hall de la Casa de Cultura.
**00:20:** Concierto. Zorongo.
**00:50:** Interludio poético. El Bardo.
**01:00:** Teatro. “Los esclavos”. Zarrapastra.
**01:15:** Interludio poético. El Bardo.
**01:20:** Concierto. Atarrabia Abesbatza.
**01:50:** Poemas recitados por el público



Llámanos
**948 13 06 05**
Horario de lunes a viernes: 9 a 20h
Sábados: 9 a 14 h

# Villava
**Clínica Dental**
Centro de Odontología Avanzada





## Somos tu sonrisa
**Más de 10 años en Villava utilizando la última tecnología en Odontología para ti y tu familia**

Financiación
**HASTA 5 AÑOS, y 12 meses**
sin intereses

[ Todas las soluciones en un solo centro ]

- Implantología
- Cirugía mínimamente invasiva
- Regeneración de tejidos óseos
- Ortodoncia niños y adultos
- Tratamientos de encías
- Atención P.A.D.I.

www.clinicadentalvillava.com
Calle Ezkaba, 2 bajo • 31610, VILLAVA (NAVARRA)

CPS-1511C / 3-11-NA